# Urdaibai Biosfera Erreserbaren Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia

biodibertsitatea
eta paisaia
BIODIVERSIDAD
Y PAISAJE

2009-2015





EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos

Guztion Konpromisoa
Biosfera Erreserba
Urdaibai
Reserva de la Biosfera
Compromiso Compartido

© Ihobe, 2009

ARGITARATZAILEA: Ihobe, S.A.
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza – Urdaibai Biosfera Erreserbaren Bulego Teknikoa

LAGUNTZA TEKNIKOA: EVERIS

DISEINUA: Dual$^{xj}$ – Comunicación & Diseño

ITZULPENA: Maramara* taldea

LEGE GORDAILUA: XXX

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmiti-tzea, erabilitako bitarteko a edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

# Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia

biodibertsitatea eta paisaia
BIODIVERSIDAD Y PAISAJE



EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos

Guztion Konpromisoa
Biosfera Erreserba
Urdaibai
Reserva de la Biosfera
Compromiso Compartido

# Aurkibidea


**1** Sarrera ..... 4

1.1 Urdaibai, Biosfera Erreserba izendatutako gune pribilegiatu ..... 4

1.2 Urdaibai 2009-2015 Eperako Estrategia testuinguruan jartzea, munduak gaur egungo erronkei ematen dien erantzuna ..... 10





**2** Partaidetza eta konpromisoa: Estrategiaren gakoak ..... 15

**3** Urdaibai 2015, iraunkortasunerantz aurrera egiten duen lurraldea ..... 17

3.1 Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren Egitura ..... 17

3.2 Ikuspegia eta oinarrizko printzipioak ..... 18





**4** Urdaibai 2009-2015 Estrategia, konpromiso partekatua ..... 21

4.1 1. ARDATZA: Lurraldearen eredu iraunkorra ..... 22

4.2 2. ARDATZA: Ondarea eta bioaniztasuna babestea eta kontserbatzea ..... 29

4.3 3. ARDATZA: Ekonomia lehiakorra eta bere inguruarekiko orekan dagoena ..... 38

4.4 4. ARDATZA: Urdaibai, barne lotura eta konpromisoa ..... 46





**5** Urdaibai 2009-2015 Estrategiaren jarraipena eta aginte koadroa ..... 54

**1. eranskina** - Metodologia ..... 60

**2. eranskina** - Esker onak eta parte-hartzaileak ..... 62

# Aurkezpena



Esther Larrañaga

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua

*Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia Urdaibain* eskumenak dituzten eragileen arteko konpromiso partekatuaren fruitu da. Ahalegin guztiak eskualdea sustatzeko bideratu nahi dituen tresna dugu honako hau; baliabide naturalen kontserbazioa eta garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra bateragarri egin nahi ditu era orekatuan.

Urdaibaik balio berezia du, eta Euskadik harro egon behar du harekin; nazioartean ere aitortu egin zaio balioa, UNESCOk *Biosfera Erreserba izendatu baitzuen 1984an*. Eusko Legebiltzarrak eremu honen Babesari eta Antolamenduari buruzko 5/1989 Legea onartu zuen, bertako ekosistema multzoa babesteko eta haien berreskurapena bultzatzeko asmoz, balio handia dute-eta naturaren, zientziaren eta ingurumen hezkuntzaren ikuspegitik. Lurralde garapenerako eredu bat ezartzea zen helburua, beraz; garapen ekonomikoa eta soziala auzitan jarri gabe, balio naturalak zein kulturalak babestea ahalbidetuko zuen eredu bat ezartzea, alegia.

*Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategiak* aprobetxatu egin nahi ditu sektoreka eta hainbat arlotan abian jarritako planen harira sortutako sinergiak (*2008-2014 Eperako Bioaniztasunerako Estrategia, 2008-2012 Eperako Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana, Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumo Euskal Plana eta Euskadiko 3E-2010 Energia Estrategia*, besteak beste), aurrerapausoak emateko Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Euskal Estrategiak ezarritako helburuetarantz.

Dokumentu hau, bestalde, prozesu luze baten emaitza da. Prozesuan herri erakundeetako, gizarteko, arlo ekonomikoko eta lurraldeetako eragile pribatuek eta publikoek parte hartu dute, baita herritarrek ere. Helburua estrategia lagungarria sortzea zen; etorkizuna bideratzeko lagungarria, batetik, eta Urdaibai, eta Euskadi osoa, ikerkuntzari, esperimentazioari eta ondare naturalaren kontserbazioa eta garapen ekonomikoa eta soziala bateratu nahi dituzten ekimenen garapenari dagokienez lurralde berritzaile bezala erreferentzia bihurtzeko lagungarria, bestetik.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategiak argia ikusten du une eta urte oso berezietan; UNESCO-k Urdaibai *Biosfera Erreserba* izendatu zueneko 25 urte igaro direnean. Mende honen azken laurdenean sorturiko behar izan berrietara moldatu den einean, estrategi honek suposatzen du urteurren hau ospatzeko modurik onena.

# Sarrera

## 1.1. Urdaibai, Biosfera Erreserba izendatutako gune pribilegiatua

### Biosferaren Erreserben kontzeptualizazioa eta funtzioak

1971n hasitako MaB Programa ikerketa, prestakuntza, eta hedapenerako nazioarteko programa da kontserbazioaren eta garapen iraunkorraren alorrean. Xedea biosferako baliabideen arrazoizko administrazioa lortzea da, haren kontserbazioa bermatuz eta gizakiaren eta ingurumenaren arteko harremana hobetuz, ingurumenaren kontserbazioa ekonomia eta giza garapen iraunkorrarekin lotuz.

*Biosfera Erreserba* kontzeptuak *Gizakia eta Biosfera Programan (MaB, Man and the Biosphere)* du jatorria, eta UNESCOk abian jarri zuen 1968an Parisen egindako Biosfera Baliabideen Arrazoizko Erabilerarako eta Kontserbaziorako Oinarri Zientifikoei buruzko Adituen Gobernuarteko Konferentzian.

Hasieran, diziplina arteko –hots, Natura eta Gizarte Zientziaren arteko– ikerketan oinarritutako jarduera gisa planteatu zen, eta giza populazioek eremu eta baliabide naturalak kontserbatzeko proiektuetan parte hartzen zuten.

MaB Programaren helburuak garatzeko tresna nagusi gisa Biosfera Erreserba kontzeptua ezarri zen, eta haren inguruan munduko sare bat sortzea ere aurreikusi zen. Horrela, Biosfera Erreserbak *UNESCOren Gizaki eta Biosferari buruzko Programaren esparruan (MAB), lehorreko edo kostaldeko/itsasoko ekosistema eremu edo haien arteko konbinazio* gisa definitzen dira.[1]

*Baliabide naturalen kontserbazioa eta ekonomia eta giza garapen iraunkorra lortzea bateratzeko helburuak frogatzeko, hobetzeko, erakusteko eta garatzeko sortutako eremuak dira.* Eremu horien funtzio nagusia elementu naturalak babesteaz gain –ekosistemak, espezieak eta, azken finean, aniztasun biologikoa–, baliabide naturalak modu iraunkorrean ustiatzeko modu tradizionalak ere babestea da. Eremu horiek, beraz, kontserbazio eta tokiko garapen politiken arteko elkarguneak dira, eta horrela, lortutako esperientzia beste lurralde batzuetara eraman daiteke.

1 Munduko Biosfera Erreserben Sarearen Estatutuak. 1. artikulua.

Zehatzago, hauexek dira Biosfera Erreserben eginkizunak:

- **Kontserbazioa:** paisaiak, ekosistemak, espezieak eta ugaritasun genetikoa kontserbatzen laguntzea.
- **Garapena:** ekonomia eta giza garapen iraunkorra sustatzea, ikuspuntu soziokulturaletik nahiz ekologikotik.
- **Laguntza logistikoa:** Tokiko, eskualdeko, herrialdeko eta munduko kontserbazioarekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako gaien harira, ingurumenari eta ikerketari buruzko erakuste, hezitze eta trebatze proiektuei laguntza eskaintzea.

Aldez aurretik aipatu denez, *Erreserbak Munduko Biosfera Erreserba Sare* batean daude, eta *UNESCOk Sevillan 1995ean egindako Batzar Nagusiak onartutako Estatutuak* jarraitzen dituzte. Bertan Biosfera Erreserbak izendatzeko definizioa, helburuak, irizpideak eta prozedura azaltzen dira. Batzar hartan, 120 herrialdetako 400 adituk eta Gobernuz Kanpoko 15 Erakundek hartu zuten parte, eta 28C/2.4 ebazpenaren bidez, Sevillako Estrategia izenekoa onartu zuten. Bertan, XXI. mendeko Biosfera Erreserben garapenerako aholkatutako neurriak adierazten dira.

Sevillako Estrategia hamar gidalerrotan oinarritzen da:

- Biosfera erreserben ekarpena sendotzea, kontserbazioa eta garapen iraunkorra sustatzen duten nazioarteko hitzarmenak aplikatze aldera.
- Ingurune egoera eta egoera ekonomiko eta kultural anitzetan biosfera erreserbak ezartzea, hein handi batean aldatu gabeko eskualdeak nahiz hiriguneak barne harturik.
- Biosfera erreserben eskualdeko, eskualdeen arteko eta gai jakin baten inguruko sare berriak sendotzea, Munduko Biosfera Erreserba Sarearen osagai gisa.
- Biosfera erreserbetan ikerketa zientifikoa, etengabeko behaketa eta trebakuntza eta irakaskuntza areagotzea, eremu horietako baliabide naturalak kontserbatzeak eta ustiatzeak natura eta gizarte zientzien oinarri sendoen beharra baitute.
- Biosfera erreserbako eremu guztiek kontserbazioaren, garapen iraunkorraren eta ezagutza zientifikoaren alde egiten dutela bermatzea.
- Trantsizio eremuak gune handi samarretara zabaltzea, ekosistemen kudeaketa errazteko eta biosfera erreserbak eskualdeetan garapen iraunkor metodoak aztertzeko eta frogatzeko aprobetxatzeko.

Biosfera erreserbaren kontzeptuari dagokion giza dimentsioa hein handiagoan kontuan hartzea. Horretarako, beharrezkoa da aniztasun kulturalaren eta biologikoaren arteko loturak sendotzea.

- Biosfera erreserba bakoitzaren administrazioa erraztea, tokiko komunitatearen eta gizartearen, bere osotasunean, arteko «hitzarmen» gisa, bereziki.
- Interesa duten eragile eta sektore guztiak jarduera komun batean biltzea; tokian tokian eta sareetan biosfera erreserbak sustatzea ahalbidetzen duen jarduera komun batean, alegia.



**Biosfera Erreserbek** garatu beharreko funtzio nagusia **munduko komunitatearentzako eredu izatea** da, **kontserbazioa eta garapen iraunkorra** sustatuz gizakien eta naturaren arteko adiskidetzearen adibide gisa. Ildo horretatik, pilatutako ezagutzaren balioa handitzea ahalbidetuko da, etorkizuneko belaunaldien beharrei erantzuteko.[2]

- Etorkizunean inbertitzea. Biosfera erreserbak gizadiaren eta ingurumenaren arteko harremanez dugun ezagutza areagotzeko erabili behar dira, hedapen, informazio eta hezkuntza programen bidez, eta epe luzerako eta gobernuen arteko ikuspegiarekin.

Laburbilduz, Biosfera Erreserbek hiru funtzio osagarri bete behar dituzte: kontserbazioa, baliabide genetikoak, espezieak, ekosistemak eta paisaiak babesteko; garapena, ekonomia eta giza garapen iraunkorra sustatze aldera; laguntza logistikoa, tokiko, herrialdeko eta munduko kontserbazioarekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako gaien harira, ikertze, hezitze, trebatze eta etengabeko behatze jarduerak babesteko eta sustatzeko.

## Urdaibai Biosfera Erreserba

*Urdaibai eremua Biosfera Erreserba izendatu zuen UNESCOk 1984an* eta, bost urte geroago, Eusko Legebiltzarrak eremu horretarako *Babesari eta Antolamenduari buruzko 5/1989 Legea* onetsi zuen, *bertako ekosistema multzoak babesteko eta haien berreskurapena sustatzeko. Horretarako arrazoia haren interes kulturala eta zientifikoa eta ingurumen hezkuntza dira.* Horrela, lurralde garapeneko eredu bat ezarri nahi da, balio naturalen zein kulturalen kontserbazioa garapen ekonomikoarekin eta sozialarekin bateragarria izan dadin.

Zuzendaritza Organoa *Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatua* da, 1990ean Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari atxikitako aholku erakunde gisa sortua. Urdaibaiko administrazioetako ordezkariek, naturaren ikerketarekin eta kontserbazioarekin loturiko erakundeek nahiz elkarteek eta zuzendari-kontserbatzaileak (erreserbaren administrazioaren arduraduna) osatzen dute zuzendaritza.

1997an, urriaren 31ko 15/1997 Legearekin, Urdaibai Biosfera Erreserbaren Babes eta Antolamenduari buruzko 5/1989 Legea aldatu egin zen, Patronatuaren osaketa zabaltzeko asmoz. Horrela, udalen ordezkaritza handitu egin zen (hiru ordezkaritik seira), lehen sektorea sartu zen (hiru kide), baita Urdaibai Biosfera Erreserbako *Lankidetza Kontseiluko* presidentea ere. Aipatu Lankidetza Kontseilua urte horretan sortu zen, eta gaur egun 16 erakunde daude bertan; era berean, Biosfera Erreserbaren kudeaketan erakunde laguntzailea da, eta inguruko erakunde sozioekonomikoak, kulturalak eta ingurumen arlokoak ordezkatzen ditu.

2 UNESCO (1996): *Biosfera Erreserbak:Sevillako Estrategia eta Munduko Sarearen Estatutuak.* UNESCO. Paris.

Beraz, gaur egun, Patronatua honako hauek osatzen dute: autonomia erkidegoko administrazioko (5), Eusko Legebiltzarreko (1), Estatuko (1) eta bertako (Bizkaiko Foru Aldundiko 3 eta udaletako 6) ordezkariak daude, zenbat alor naturalista eta kulturaletako ordezkariekin batera –unibertsitatea, MaBeko Espainiako Batzordea eta naturaren kontserbazioaren aldeko eta natura ikertzen duten elkarteak – eta Urdaibaiko Lankidetza Batzordeko presidentea.

Planifikazioaren ikuspuntutik eta Eusko Legebiltzarrak *Urdaibai Biosfera Erreserbaren Babesari eta Antolamenduari buruzkoa 5/1989 Legea* onetsi zuenetik planifikaziorako, kudeaketarako eta Biosfera Erreserbako baliabideak modu iraunkorrean erabiltzeko hainbat tresna garatu dira. Hauexek dira esparru horri dagozkion tresnak: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP, 1993an 2003an aldatua); Ingurumenaren interpretaziorako, ikerketarako eta hezkuntzarako Urdaibaiko Erabilera Plana (1997); eta Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE, 1998).

Esan bezala, 5/1989 Legea *Erabilpenerako eta Kudeaketarako Planaren* bidez garatzen da (abuztuko 3ko 242/1993 Dekretua, otsailaren 11ko 27/2003 Dekretuaren bidez aldatua). Tresna arautzailea da, eremu horretan kontserbazio eta antolamendu helburuak betetzeko beharrezkoak diren tresnak ezartzea xede duena.



Laburbilduz, Urdaibaiko Erabilpenerako eta Kudeaketarako Planak lurraldearen antolamendu eta erabilpenerako zuzentarauak ezartzen ditu, lurzoru urbaniezinari dagokionez. Haren oinarrizko garapen tresnak *Lurralde Ekintzarako Planak* dira, beharrezko egitarauak eta integratutako programak barne hartzen dituztenak. Plan horiek hirigintza plan berezi gisa definitzen dira, eta beren xedea baliabideen babesa eta antolamendua dira zonakatzean ezarritako eremuentzat (EKZPean, Babes Bereziko Eremu, Babes Eremu, Nekazaritza Intereseko Eremu, Baso Eremu, Landa Lurzoru Arrunteko Eremu, Bizigune Eremu eta Sistema Eremu izendatutakoak) edo Lurraldearen Kudeaketarako Ingurumen Unitateentzat.

1997an, Patronatuaren Osoko Bilkurak *Ingurumen Interpretaziorako, Ikerketarako eta Hezkuntzarako Erabilera* Plana onartu zuen, tokiko biztanleentzako, eragile sozialentzako eta Urdaibaiko lurrak erabiltzen dituzten beste pertsona batzuentzako jarduera esparrua ezartzen duena. Horren helburua ikerketatik, informaziotik, hezkuntzatik, trebakuntzatik eta tokiko egileen zuzeneko partaidetzatik abiatuta, garapen iraunkorraren kontzeptua praktikan jartzea da.

1998an *Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE)* onartu zen, garapen iraunkorraren printzipioei jarraiki sektorearen politiken planifikazio integratua ezartze aldera. JSEGEren helburu orokorra *planifikazio integratua ezartzea da, EAEko beste politika sektorial batzuen esparruan. Horretarako epe laburrera, ertainera eta luzera gauzatu beharreko estrategiak eta jarduerak aztertzen eta definitzen dira; era berean, natura eta giza baliabideak modu iraunkorrean aprobetxa daitezen ahalbidetzen da, epe ertainera nahiz luzera bertako biztanleentzako bizi kalitate estandar jakin bat bermatzeko, baita ingurumen balioak mantentzeko eta hobetzeko ere.*

Ondokoak dira JSEGEan ezarritako helburu estrategikoak:

- Landa gunea; funtzio aniztasunean, ekoizpenean eta merkaturatzean, prestakuntzan, enpleguan, emakumeak nekazaritza ustiapenean duen eginkizunean, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorrean eta, oro har, bizi kalitatean eragina duen edozein alderditan garatutakoa.
- Industria sektore lehiakorra, ingurumena errespetatzen duena, enplegua sortzen duena eta, aldi berean, ingurumena errespetatzeko ekoizpen modu iraunkorrak erabiltzen dituena.
- Sektore turistikoa, kudeaketan, egituraketan eta kanpo sustapenean aurrera egiten duena eta lanari dagokionez onurak dakartzana.
- Ondo komunikatutako lurraldea, bertako garapen ereduarekin bat egiten duten jarduerak erakartzeko azpiegiturak optimizatzen eta sustatzen dituena eta inguruko beste eremu batzuekin integraturik dagoena.
- Baliabideei nahiz ahaleginei ahalik eta probetxu handien ateratzen dien gunea, administrazio publikoen eta eragile pribatuen aldetik ahalik eta koordinazio handienarekin.

Aurreko bost helburu estrategikoak 10 estrategiaren, 22 jarduera lerroren eta 100 garapen proposamen baino gehiagoren bidez garatzen dira. Barne hartzen dituzten sektore guztien artetik, ondokoak nabarmen daitezke:

- Basogintzaren antolamendua.
- Uraren hornidura kalitatean eta kantitatean/Hiri hondakin uren kudeaketa.
- Energia: hornidura elektrikoa hobetzea, eraginkortasun energetikoa eta energia alternatiboak.
- Landa inguruan bizi kalitatea hobetzea: etxebizitza eta habitata zerbitzuak, emakumearentzako arreta eta abar hobetzea.
- Azpiegiturak. errepideak/trenbidea/intermodalitatea/portuko jardueren antolamendua.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena: bertako produktuak sustatzea, etiketatzea, eraldatzea eta merkaturatzea.
- Arrantza: baxurako itsasontzientzako laguntza, hobeto merkaturatzeko laguntza...
- Industria eta enpresa garapena: behar berriak, prestakuntza, lurzoruaren antolamendua jarduera ekonomikoetarako.
- Turismoaren kudeaketa hobetzea: azpiegiturak, eta ingurumen eta kultura balioetan oinarritutako turismoa sustatzea.
- JSEGE dinamizatzeko tresnak: plan sektorialak eta jarraipen batzordea.

JSEGE onetsi zenetik babeserako hainbat tresna garatu dira; hala nola, Gernikako ibarreko akuiferoa babesteko perimetroa eta hainbat plan sektorial –Urdaibai saneatzeko *Lurralde Ekintzarako Plana* eta *Energia Ingurumen Plan Gidaria 2003-2010*, besteak beste; gaur egun gauzatzen ari diren beste batzuk ahaztu gabe (Urdaibaiko udalerrien *Tokiko Agenda 21 Jarduera Planak*, esaterako)–.

Kopuru aldetik, 2007an JSEGEaz egindako ebaluaketaren arabera, hura ezarri eta ia hamar urte geroago, ondorengoa agerian geratu da:

- 22 jarduera lerroetatik, bi hasi gabe daude (%9), hamasei gauzatzen ari dira (%73), hiru gauzatu dira (%14) eta bat ez da egokia (%4).
- 98 garapen proposamenetatik, 23 hasi gabe daude (%23,5), 43 gauzatzen ari dira (%44), 26 gauzatu dira (%26,5) eta sei ez dira egokiak (%6).

Aldez aurretik egiaztatu ahal izan denez, Urdaibai Biosfera Erreserbako lurraldean administrazio publiko anitz daude. Hortaz, eskumen aldetik, oso konplexua da ondoko taulan ikus daitekeenez.

Aurrekari horiekin, 2006an *Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia gauzatzeari ekitea erabaki zen, Urdaibain eskumenak dituzten erakundeen eta eragileen arteko konpromisoa bilatze aldera.* Helburu nagusia JSEGErekin hartutako konpromisoak berrikusteko prozesua garatzea zen, baita Urdaibairentzako xedeak, jarraibideak eta etorkizuneko eredua zehaztea ere.

## Udalak

- Obra lizentziak, hirigintza lizentziak eta sailkatutako jardueren lizentziak onestea eta ematea.*
- Udalerriko hirigintza plangintza egitea (etxebizitzetarako lurzorua, industria eta zerbitzuetarako lurzorua eta abar).*
- Ingurumena babestea.
- Ur hornidura eta ur hondakinen tratamendua.
- Hondakinen bilketa eta tratamendua.
- Garraio publikoa eta herriguneetarako sarbidea, besteak beste.

* Jarduera horiek landa lurzoruetan eragina dutenean, udalek Biosfera Erreserbako Patronatuari txostena eskatu behar diote lizentzia edo baimen horiek eman aurretik.

## Bizkaiko Foru Aldundia

- Hirigintza planak behin-behinean onestea, 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan (Urdaibain, guztiak Gernika-Lumo eta Bermeo izan ezik).
- Obra lizentziak onestea eta ematea, errepideetan, kultura ondarean, babestutako espezieengan eta abarrengan eragina duten jardueren kasuan.
- Obra lizentziak, errepideetan, kultura ondarean, babestutako espezieengan eta abarrengan eragina duten jardueren kasuan.
- Basoen kudeaketa eta ustiapena, ehiza eta arrantza eta abar.

## **Eusko Jaurlaritza** (hainbat sail)

- Lurralde plangintza egitea eta onestea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak udal plangintzari buruzko txostena egin beharko du, behin betiko onetsi aurretik (Udalak, 7.000 biztanle baino gehiago baditu; Bizkaiko Foru Aldundiak, 7.000 biztanle baino gutxiago baditu).
- Lurralde plangintza.
- Jabari hidrauliko publikoaren kudeaketa.
- Hirigintza planak behin betiko onestea 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.
- Sektoreen plangintza eta sustapena (industria, turismoa, nekazaritza eta ingurumena, besteak beste).

## **Eusko Jaurlaritza** (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila)

- Urdaibaiko 5/1989 Legea aplikatzearen ondoriozkoak.
- Ingurumena babesteari buruzko 3/1998 Legea aplikatzearen ondoriozkoak.

| Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatua | Urdaibai Biosfera Erreserbako Bulego Teknikoa |
|---|---|
| Administrazioen arteko koordinaziorako eta partaidetzarako organoa da. Elkargunea eta koordinaziorako gunea, politika sektorialen arteko barne loturaren bermea. | Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Urdaibai Biosfera Erreserbarako emandako langileak eta baliabide ekonomikoak eta materialak dira. |
| • Urdaibaiko 5/1989 Legean ezarritako helburuak betetzen direla bermatzea.<br>• Eskumena duten administrazio sektorialek plan sektorialak egin ditzaten sustatzea.<br>• Lurzoruaren erabilerari, eraikuntza jarduerei eta hirigintza antolamendu planei edo Urdaibaiko ingurune fisikoan eragina duen beste edozein plan sektorialari edo jarduera programari buruz txostenak egitea.<br><br>Urdaibai Erreserba Biosferako Patronatuak ez du hirigintza lizentziarik baimentzen ez ematen. Modu berean, ez du hiri lurretako jarduerei buruz berririk ematen eta ez ditu haiek baimentzen. | • Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatuari aholkularitza teknikoa eskaintzen dio. |

**1. taula.** Eskumenen banaketa, Urdaibai Biosfera Erreserban.

## 1.2. Urdaibai 2009-2015 Eperako Estrategia testuinguruan jartzea, munduak gaur egungo erronkei ematen dien erantzuna

Iraunkortasunaren kontzeptua gaur egungo belaunaldien nahiz etorkizunekoen bizi kalitatea mantentzeko eta hobetzeko erronka da. Horretarako, natura ondarearen babesaren, garapen sozialaren eta hazkunde ekonomiko etengabe eta iraunkorraren arteko oreka lortu behar da epe luzera.

Garapen ereduak planetan izango duen eragina mundua kezkarazten hasi zen 70eko hamarkadan. Hala ere, mundu osoak hartutako konpromisoa areagotu egin zen *Brundtland txostena 1987an* argitaratu zenean, eta *Ingurumenari eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Batzarra* Rio de Janeiron 1992an egin ondoren (aipatutako batzarrean onartu ziren Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena, Agenda 21, Basogintzari buruzko Printzipioen Aitorpena, Klima Aldaketarako Nazio Batuen Esparru baterako Konbentzioa eta Aniztasun Biologikoari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa).

Mundu osoko eztabaida hasi zenetik, herrialdeek eta eskualdeek gero eta konpromiso handiagoa hartu dute pixkanaka. Europan, 1994an, *I. Hiri eta Herri Iraunkorren Batzarrean,* Europako tokiko erakundeen iraunkortasunerako ekimena agerian geratu zen, eta Aalborgeko Gutuna sinatu zuten. Rio de Janeiroko batzarraren (1992) emaitzak eta, bereziki, Tokiko Agenda 21en baldintzak tokian tokira ekartzeko asmoz, iraunkortasun eta justizia sozial printzipioak politika sektorial guztietan txertatu nahi dira (ekonomia, gizartea, nekazaritza, osasuna eta abar). Era berean, helburu globalak lortze aldera, zeharkakotasunaren eta tokiko eremuaren garrantzia nabarmendu da. Azken deialdia *V. Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Batzarra Sevilla 2007* izan zen, eta bertan udaletako 1.500 ordezkari inguruk parte hartu zuten Aalborgeko Konpromisoen ezarpenaren arrakastaren adibideak emateko eta konpromiso horiek berresteko asmoz.

### Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia

Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiaren arabera, garapen iraunkorraren definizioa honako hau da: «Haren beharra asetzeko gaur egungo belaunaldiak duen gaitasuna, etorkizuneko belaunaldiek haiena asetzeko izango dutena arriskuan jarri gabe». Zeharkako helburutzat hartzen da, Europako politika guztiei esparru bat emango diena.



Europako Batasunaren garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa 2001eko ekainean zehaztu egin zen, Europako Kontseiluak *Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia* onartu zuen. Kontseiluak Batzordearen komunikazio batean oinarritu zuen estrategia: «*Mundu berria lortzeko garapen jasangarria, Europan: garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia*». Baita geroagoko honako honetan ere: «*Garapen jasangarriaren aldeko mundu osoko elkartea sortzeko bidean*».[3]

3 COM (2001) 264: «Mundu berria lortzeko garapen jasangarria Europan: Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia» eta COM (2002) 82: «Garapen jasangarriaren aldeko mundu osoko elkartea sortzeko bidean».

Europako Batasunak gizarte oparoago eta bidezkoago baten ikuspegia definitzen du, ingurumen garbiagoa, seguruagoa eta osasuntsuagoa promesten duena; gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat bizi kalitate hobea ahalbidetzen duen gizartea. Horrela, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik garapen iraunkorrerako politikak batzen dituen epe luzerako estrategia ezartzen da, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta bizi baldintzak modu iraunkorrean hobetze aldera.

Abiapuntu gisa, Europako Batasunak «iraunkorrak ez diren joerak» daudela dio: hala nola, klima aldaketa, energiaren gehiegizko erabilera, osasun publikoa, pobrezia, gizarte bazterketa, zahartzea, baliabide naturalen eskasia, bioaniztasunaren galera, lurraldearen antolamendua eta garraioa. Joera horiei aurre egiteko, aurreko jarduera eremuetan zenbait erronka nagusi ezarri ditu; helburuak eta jarduera proposamenak ere badituzte erronka horiek.

2005ean estrategia berrikusi egin zen eta oinarrizko printzipioak berretsi ziren –garapen iraunkorraren hiru dimentsioak, zeharkakotasuna eta mundu osoak egin beharreko ekarpena– eta lankidetzan eta elkartasunean, ikerketan, berrikuntzan eta teknologia berrietan, eta herritarrei nahiz enpresei zuzendutako informazioan/hezkuntzan oinarritutako erantzunak abiarazi beharra aitortu zen.[4]

## Euskadiren iraunkortasunaren aldeko konpromisoa



**Euskadiren iraunkortasunaren aldeko konpromisoak** «gure bizi kalitatea iraunkortasunaren oinarrietan eraiki nahi du: ongizate ekonomikoa, justizia soziala eta ingurumen garbia eta osasuntsua».

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren babesari buruzko 3/98 Legeak* garapen iraunkorra ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako ingurumen politika ororentzat.

2001ean *Euskadiren iraunkortasunaren aldeko konpromisoa* sinatu zen. Bertan zehatz mehatz proposatu zen garapen iraunkorrerako eredu baten oinarriak finkatzea, eta urtebete geroago, *Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)* eta lehendabiziko *Ingurumen Esparru Programa (2002-2006)* onetsi ziren. Azken honek ikuspegi estrategikoa barne hartzen du, Lurrari buruzko 1992ko Rio de Janeiroko batzarrean hartutako konpromisoei jarraiki.

Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiarekin eta ingurumenaren alorreko Ekintza Komunitarioko Seigarren Programarekin bat, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak *ingurumenarekin zerikusia duten bost xede finkatu ditu:*

4 COM (2005) 658 amaierakoa: «Garapen iraunkorrerako estrategiaren berrikuspenari dagokionez. Ekintza plataforma».

1. Aire, ur eta lur garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. Naturaren eta bioaniztasunaren babesa: sustatu beharreko balio paregabea.
4. Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua.
5. Klimaren aldaketaren eragina murriztea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak lehentasunez sustatu beharreko bost baldintza bere gain hartu ditu:

1. Ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan integratzea.
2. Indarrean dagoen araudia eta haren aplikazioa hobetzea.
3. Merkatua konbentzitzea, ingurumenaren alde egin dezan.
4. Herritarrak, administrazioa eta enpresak gaitzea, erantzule egitea, eta haien portaerak aldatzea, iraunkortasun handiagoaren alde.
5. Ingurumen arloko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza.

I. Esparru Programaren indarraldia amaituta (2002-2006), *II. Ingurumen Esparru Programa IEP 2007-2010* onetsi zen. Ondorengo ikuspegia ezarri zuen: *«2020an, ingurumen arazo nagusiak konpontze bidean dituen Euskadi bat ematea hurrengo belaunaldiari»*. Hori lortzeko, hauxe da 2020rako Erronka Estrategikoa: *«Nazioarteko ingurumenarekiko kezkari probetxua ateratzea, ekonomiaren sektore guztietan aplikazio berritzaileak sortzeko eta teknologia garbien garapenari, ekoeraginkortasunari, eraginkortasun energetikoari eta erabilgarri dauden teknologiarik onenak martxan jartzeari dagokienez Euskadi abangoardian jartzeko».* [5]



5 2007-2010 epealdirako Ingurumen Esparru Programa (IPE) gauzatzeko, Nazio Batuen Erakundeak garatutako estrategiak kontuan hartu dira (Nazio Batuen Ingurumen Programa, Klima Aldaketarako Nazio Batuen Konbentzioa, Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Batzarra), baita Europako Batasunaren estrategiak eta nazioarteko herrialde eta eskualdeetako esperientziarik aurreratuenak ere.

Planteamendu estrategiko horretatik abiatuta, 2002az geroztik ekimen ugari garatu dira Euskal Ingurumen Estrategian finkatutako konpromisoak betetze aldera. Haien artean, *Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana 2008-2012*; *Ingurumenaren aldetik iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana 2006-2010*; *Tokiko Agenda 21 ezartzea* udalerrietan; Euskadi 3E-2010 Energia Estrategia; Ingurumen arloko Informazio, Komunikazio eta Herritarren Partaidetza Estrategia; Ingurumen Ikuskaritza eta Kontrol Plana 2008-2011; *Lurzoru Kutsatuen 2007-2012 aldirako Plana*; Hondakin Arriskutsuak 2008-2011 aldian Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana; eta *Bioaniztasunaren Estrategia 2008-2014.*

Horrekin guztiarekin, *Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategiak* sektorekako eta zeharkako plangintza ugaria martxan jartzearen ondorioz sortutako sinergia guztiak aprobetxatu nahi ditu, *Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak bildutako helburuak betetze aldera.*

Urdaibaiko 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia garatzeko, *iraunkortasunaren dimentsio hirukoitza bereziki nabarmendu da* (soziala, ekonomikoa eta ingurumen arlokoa), eta horretarako, *partaidetza prozesu garrantzitsua abian jarri da*.

*Erantzukidetasunean eta berrikuntzan* oinarritutako estrategia da, bai Urdaibaiko balio bereziak babesteko eta kontserbatzeko, bai gure ekoizpen eta kontsumo ereduak ingurumenean duen eragina saihesteko edota murrizteko. Ingurumen eta natura ondarea etorkizuneko aukera gisa onartzean oinarritutako estrategia ere bada, tokiko ekonomiaren lehiakortasuna nahiz eskualdeko bizi kalitatea hobetzeko.

Azkenik, Urdaibaik Biosfera Erreserba gisa duen balioa kontuan hartuta, 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategiak lagundu egin nahi du Euskadi erreferentzia bihurtzen, *Urdaibaik ikerketarako, esperimentaziorako eta ekimenen garapenerako eremu berritzaile gisa duen* papera sustatuz, kultura ondarearen eta garapen ekonomiko eta sozialaren arteko oreka bilatzeko.

# Partaidetza eta konpromisoa: Estrategiaren gakoak

Herritarren nahiz erakundeen partaidetza giltzarria izan dira Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia diseinatzerakoan. Hortaz, Estrategia egiteko prozesuan, Biosfera Erreserbako eragile sozial, ekonomiko, politiko eta lurraldekoek parte hartu dute, baita herritarrek ere, oro har. Izan ere, haien esperientziarekin eta ezagutzarekin, Urdaibairen indarguneak eta ahuleziak adierazteaz gain, lurraldeko mehatxuak eta aukerak identifikatu dira.

Partaidetza metodologia hau garatzeak Urdaibaiko egoeraren diagnostikoa ezartzea ahalbidetu du. Informazio estatistikoa erabilita egindako diagnostiko teknikoa gizartearekin egiaztatu egin da, eskualdeko eskari nagusiak identifikatzeko eta Urdaibaiko egoera hobetzeko eta sustatzeko etorkizunean egin beharreko jarduerak diseinatzeko. Hori guztia bai lurraldean bizi diren pertsonen bai lurraldean eskumena duten erakundeen laguntzarekin; hortaz, Garapen Iraunkorrerako Estrategiak gizartearen aldetik zilegitasun zabala eskuratu du.



Adostasun zabalean oinarritutako konpromiso partekatua lortzeko, hainbat esparru eta partaidetza tresna sortu dira:

- **Erakundeen arteko mahaia,** Urdaibai Biosfera Erreserban eskumena duten erakunde nagusietako ordezkariz osatutakoa (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta udalak, batez ere).
- **Eragileen Batzordea,** lurralde, ingurumen, ekonomia eta gizarte alorretan egindako lanarengatik nabarmendutako Urdaibaiko pertsona esanguratsuez osatua.
- **Panel Sozioekonomikoa,** hainbat elkartetako eta GKEtako ordezkariez, enpresariez, sindikatuez, unibertsitateez eta irakaskuntza eta ikerketa beste gune batzuez eta abarrez eratua (gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorrekin zerikusia dutenak).
- **Elkarrizketa sakonak;** Adituen Batzordeko kideen artean berrogeita hamar elkarrizketa baino gehiago egin dira.
- **Inkesta kualitatiboa;** Urdaibaiko erakunderik eta eragilerik esanguratsuenen pertzepzioa ezagutzea izan du helburu.
- **Urdaibai Iraunkor Foro,** prozesuari buruzko informazioak emateko, Urdaibaiko gizartearen iritziak eta ekarpenak jasotzeko, eta prozesuaren faseak egiaztatzeko topalekua.

Gainera Ingurumen Sailaren *webgunean* (www.euskadi.net/urdaibai) atal bat dago prozesuari buruzko informazioa emateko, informazioa trukatzeko eta herritarrek Estrategiaren definizioan parte hartzeko aukera izan dezaten –ez bakarrik zuzenean, baita Eusko Jaurlaritzaren webgunetik eta prozesu horretarako diseinatutako posta elektronikotik ere–.

Tresna horiekin guztiekin prozesu osoan partaidetza esparru irekia eta etengabea garatu da, eta bertan, iritziak, kritikak eta iradokizunak jaso daitezke; betiere Estrategiaren garapenerako ekarpen positiboak lortzeko asmoz.

# Urdaibai 2015, iraunkortasunerantz aurrera egiten duen lurraldea

Garapen Iraunkorrerako Estrategia Biosfera Erreserbako eragileen, erakundeen eta biztanleen arteko konpromiso partekatua da, 2015ean Urdaibai bizikidetzaren, oparotasun ekonomikoaren eta ondarearen kontserbazioaren aldetik erreferente bilakatu dadin.

## 3.1. Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren Egitura

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategia modu sistemikoan egituratzen da ardatz estrategikoak, lehentasunezko lerroak eta jarduerak identifikatzen dituen Esparru Estrategikoan. Hori guztia, lurralde honek tarte horretan lortu nahi duen helburua jasotzen duen Urdaibai 2015 Ikuspegiaren arabera; horretarako, oinarrizko printzipioak behar dira, Estrategia osoarentzat zeharkakoak direnak.

Horrela, Esparru horrek erantzun egiten die eskualdean garatuko den estrategiari buruzko lau galdera nagusiei: *Nora jo nahi dugu?*; *Nola?*; *Zeren bidez?* eta *Zerekin?* Galdera horietako bakoitza erantzuteko, ondoko grafikoan ikus daitekeenez, Esparru Estrategikoa osatzen duten elementuak daude: Urdaibai 2015 Ikuspegia; Oinarrizko Printzipioak; Ardatz Estrategikoak; Lehentasunezko Lerroak; eta Jarduerak.






URDAIBAI 2015 IKUSPEGIA:

«Iraunkortasunerantz aurrera egiten duen lurraldea, bere ondare naturala mantenduz eta horri balioa emanez, bizi kalitatea eta dinamismo ekonomikoa giltzarriak izanik eta konpromiso partekatuaren eta herritarren partaidetzaren bidez».

Zehatz mehatz, ondoko grafikoak Esparru Estrategikoaren egitura jasotzen du, alderdi guztien arteko lotura definituz. Ildo horretatik, nabaria da Urdaibai 2015 Ikuspegia lortzeko *Ardatz Estrategikoak* garatu behar direla, horiek baitira Urdaibaik ondorengo zazpi urteotan lortu nahi dituen helburu nagusiak.

Aldi berean, Ardatz Estrategikoak ardatz bakoitzaren helburuak berariaz garatzen dituzten *Lehentasunezko Lerroetan* oinarritzen dira. Horien guztien artetik, aldi baterako lehentasuna duten jarduerak sortzen dira, proposatutako helburuak gauzatuko dituztenak.

Horren guztiaren euskarri gisa *Estrategiaren oinarrizko printzipioak* daude, proposatutako helburuak prozesu osoan betetzen direla bermatzeko eta Urdaibai 2015 Ikuspegia lortzeko.

Esparru Estrategiko hori eraginkor bihurtu da 2009-2015 Eperako Urdaibaiko Jarduera Planaren bidez. Plan horretan lehentasunezko lerro bakoitzean garatuko diren jarduerak daude, Oinarrizko Printzipioen laguntzarekin Ardatz Estrategikoen helburuak betetzea eta beraz, Urdaibai 2015 Ikuspegia lortzea helburu dutenak.

## 3.2. Ikuspegia eta oinarrizko printzipioak

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak *Urdaibai 2015 Ikuspegia* lortu nahi du. Honako hau, hain zuzen: *«Iraunkortasunerantz aurrera egiten duen lurraldea, bere ondare naturala mantenduz eta horri balioa emanez, bizi kalitatea eta dinamismo ekonomikoa giltzarriak izanik eta konpromiso partekatuaren eta herritarren partaidetzaren bidez».*

Ikuspegi hori lortzeko, Estrategiak oinarrizko hamaika printzipio bete behar ditu, orokorrak eta zeharkakoak –prozesu osoan–. Printzipio horiek betez eta errespetatuz gero, hein handi batean, etorkizunean Estrategiaren arrakasta bermatuko da.




Hauexek dira zeharkako oinarrizko printzipioak:

- **Eskualde ikuspegia:** Urdaibaik udaletik haratago doan lurralde ikuspegi batekin jardun behar du Biosfera Erreserbaren osotasunari begira, lurralde osoari mesede egiten dioten proiektu globaletan parte hartuz.
- **Lidergoa:** Administrazio Publikoek beren lidergoa sustatu beharko dute proposatutako helburuak lortze aldera. Partaidetza-lidergoa izan beharko du, gainontzeko eragileak eta herritarrak, oro har, inplikarazi behar ditu eta; horrela baino ez baita izango lidergoa eraginkorra.
- **Lankidetza publiko-pribatua:** Beharrezko da Biosfera Erreserbaren proiektu estrategikoetan engaiatutako enpresa pribatuen eta erakunde publikoen arteko lankidetza lortzea.
- **Garapen eredu propioa:** Urdaibain eskualdearen nortasunaren ikur bilakatuko den eta, aldi berean, beste biosfera erreserba batzuen garapenerako erreferente izango den garapen eredu propioa aplikatzearen alde egin behar da.
- **Bizi kalitatea:** Urdaibairen ezaugarri izan behar du bertan bizi direnei bizi kalitate handia eskaintzeak. Herritarrei nahiz bisitariei ongizate ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa ematen dizkien lurraldea.
- **I+G+B:** Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza: I+Gri dagokionez, «ikerketak eta garapen esperimentalak barne hartzen dute ezagutza bolumena areagotzeko sistematikoki gauzatutako lan sortzailea, baita gizakiaren, kulturaren eta gizartearen ezagutza, eta ezagutza horiek denak aplikazio berriak sortzeko erabiltzea ere.»[6] Era berean, berrikuntzaren kontzeptua hauxe da: «Produktu (ondasun edo zerbitzu) berria, edo nabarmen hobetua, prozesu bat, merkaturatze metodo berria eta antolaketarako metodo berria enpresako barne praktiketan, lantokiaren antolamenduan edo kanpoko harremanetan txertatzea».[7]
- **Aniztasuna:** lurralde anitza, non ideia guztiek lekua duten eta errespetatzen diren, non pertsonek beren iritziak askatasunez adieraz ditzaketen eta non proiektuak adostasun zabalez garatzen diren.

6 Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolamenduaren (OECD) araberako definizioa (1963), «Ikerkuntza eta garapen esperimental inkestetarako arau praktiko proposamena», «Frascatiren Eskuliburu» izenez ezaguna dena.

7 Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolamenduaren (OECD) araberako definizioa (1967), "Zientzia eta teknologia arloko jardueren neurketa.Teknologia berrikuntzaren datuak biltzeko eta interpretatzeko proposatutako zuzentarauak: Osloko Eskuliburua".

- **Aukera berdintasuna:** pertsona guztiek, sexua, izaera soziala, etnia edo ezintasuna edozein dela ere, aukera eta eskubide berak izan behar dituzte baldintza berberekin.
- **Erakundeen arteko parte hartzea eta lankidetza:** lurraldean eskumena duten erakunde guztien konpromisoa eta parte hartzea duen Biosfera Erreserba. Urdaibairen mesederako batera lanean diharduten erakunde koordinatuak.
- **Parte hartzea:** herritar parte-hartzaileak eta konpromisoa dutenak, esku hartzen dutenak eta Urdaibaiko proiektu estrategikoen zati direla sentitzen direnak. Hori guztia, eragile guztiak biltzen dituzten partaidetza bide malgu eta berritzaileen bidez.
- **Partekatutako konpromisoa:** eskualdeko eragile guztiek eta bertako biztanleek partekatzen duten produktu komuna; izan ere, horiek guztiak Urdaibairentzako etorkizun arrakastatsua lortzeko engaiatu dira.

Oinarrizko printzipio horiekin batera, partaidetza prozesuan identifikatutako Eskari Nagusietatik definitutako lau Ardatz Estrategikoetan oinarritzen da Urdaibai 2015 Ikuspegia. Ardatz horiek Biosfera Erreserbaren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak ondorengo urteotan lortu nahi dituen helburu nagusiak dira:

1. Lurraldearen eredu iraunkorra.
2. Ondare naturala eta bioaniztasuna babestea eta kontserbatzea.
3. Ekonomia lehiakorra eta ingurunearekiko orekan dagoena.
4. Urdaibai: gizartearen barne lotura eta konpromisoa.

Ardatz Estrategikoen helburuak islatzeko, Ardatz bakoitzaren aukera espezifikoei dagozkien hainbat Lehentasunezko Lerro garatu dira. Modu berean, Lerro horietako jarduerak Urdaibai 2015 Ikuspegia lortzeko ekintzak dira.

Alderdi horiekin guztiekin (Ikuspegia, Oinarrizko Printzipioak, Ardatz Estrategikoak eta Lehentasunezko Lerroak), 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren Esparru Estrategikoa ondoko grafikoan azaltzen denez egituratzen da:



# Urdaibai 2009-2015 Estrategia, konpromiso partekatua

Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2009-2015 Eperako Garapen Iraunkorreko Estrategia Urdaibain eskumenak dituzten eragileen arteko konpromiso partekatuaren fruitu da.

2015 Ikuspegia lortzeko, «*Iraunkortasunerantz aurrera egiten duen lurraldea, bere ondare naturala mantenduz eta horri balioa emanez, bizi kalitatea eta dinamismo ekonomikoa giltzarri izanik eta konpromiso partekatuaren eta herritarren partaidetzaren bidez*», lau Ardatz Estrategiko eta hamabi Lehentasunezko Lerro hartzen dira, eta haiek hirurogeita hamabi jarduera dituzte. Ondorengoak, hain zuzen:

| | |
|---|---|
| **1. ARDATZA. Lurraldearen eredu iraunkorra** | 1.1. LL – Lurralde eta hirigintza plangintza integratua |
| | 1.2. LL – Hirigintza garapen iraunkorra |
| | 1.3. LL – Urdaibai, erabilgarria eta interkonektatua |
| **2. ARDATZA. Ondarea eta bioaniztasuna babestea eta kontserbatzea** | 2.1. LL – Inguru naturala, bioaniztasuna eta ondarea kontserbatzea eta berreskuratzea |
| | 2.2. LL – Arroaren erabateko saneamendua |
| | 2.3. LL – Energia eredu iraunkorra |
| **3. ARDATZA. Ekonomia lehiakorra eta bere ingurunearekiko orekan dagoena** | 3.1. LL – Berrikuntza eta sustapen ekonomikoa |
| | 3.2. LL – Marka eta kalitatearen irudia. |
| | 3.3. LL – Turismo iraunkorra |
| **4. ARDATZA. Urdaibai, gizartearen barne lotura eta konpromisoa** | 4.1. LL – Urdaibai, pertsonen zerbitzura |
| | 4.2. LL – Gizarte solidarioa eta kultura artekoa |
| | 4.3. LL – Herritarrak, protagonistak: partaidetza eta konpromisoa |

# 4.1. 1. ARDATZA: Lurraldearen eredu iraunkorra




## «Lurraldeari dagokionez orekatutako eskualdea lortzea, Urdaibai Biosfera Erreserba erabilgarria eta bere ondarearekin arduratsua izateko»

Urdaibai Biosfera Erreserba 22.040 hektareako lurralde berezia da, Oka ibaiaren estuarioaren inguruan du ardatza, eta Oka, Mape, Artike eta Laga ibaien arro hidrografikoek ezarritako topografiak baldintzatzen du. Era berean, erliebe menditsuak ere baditu; hala nola, Sollube, Oiz, Astoagana eta Goroño. Topografiak populaketa baldintzatu du. Izan ere, gaur egun biztanleriaren % 75 Bermeo eta Gernika-Lumo udalerrietan dago, eta gainontzeko % 25 hainbat herritan, gehienak landa-inguruetan.

Urdaibairen dentsitatea, batez beste, 154 bizt/$km^2$ da; Euskal Autonomia Erkidegokoa (301 bizt/$km^2$) eta Bizkaikoa (514 bizt/$km^2$) baino askoz ere txikiagoa. Euskadiko gainontzeko aldeetan gertatzen den moduan, kopuru horrek landa eremu-hiri eremu dualtasun egoera islatzen du. Alde handia baitago herri batetik bestera: 16 bizt/$km^2$ Munitibarren, eta 1.995 bizt/$km^2$ Gernika-Lumon, esaterako.

## Eskumenen banaketa lurralde antolamenduari eta hirigintza plangintzari dagokienez

Urdaibaik administrazioaren eta eskumenen aldetik konplexutasuna du ezaugarri. Hogei udalerri baino gehiagoz osatutako lurraldea da, UNESCOk Biosfera Erreserba gisa izendatutakoa eta Eusko Legebiltzarraren uztailaren 6ko 5/1989 Legeak, Urdaibai Biosfera Erreserbaren babesari eta antolamenduari buruzkoak, eta Eusko Jaurlaritzaren abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak onetsitako eta otsailaren 11ko 27/2003 Dekretuak aldatutako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) zehaztutako berezko esparru arautzailea duena.

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana Urdaibairen antolamendurako eta erabilpenerako zuzentarauak eta bertako balio naturalak babesteko, berreskuratzeko eta zaintzeko beharrezko kudeaketa eta jokabide arauak ezartzeko tresna da. Horretarako, zonakatze bat ezarri du, hainbat erabileratarako eremuak mugatuta, babes mailak ezarrita, eta onartutako eta debekatutako jarduerak zehaztuta; baliabide naturalei eta hirigintza xedapenei probetxu atereaz.

Eusko Jaurlaritzari dagozkio lurraldearen antolamenduari buruzko eskumenak, hark egiten baititu lurraldearen antolamendurako artezpideak (LAA), Euskal Autonomia Erkidegoko osoari eragiten diotenak. Lurraldearen antolamendurako artezpideak eskualdean garatzen dira (Unitate Funtzionalak izenekoak) Lurraldeko Zati Planen bidez (LZP). Gernika-Markinako Eremu Funtzionalean dago Urdaibai, eta bertako LZP gaur egun aurrerapen-fasean dago.

*Gernika-Markinako Eremu Funtzionaleko LZP* Biosfera Erreserbaren erregimen berezira egokitu behar da, eta bere legeria espezifikoa kontuan hartu beharko du; zehazki, Urdaibaiko babesari eta antolamenduari buruzko 5/1989 Legea. Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako aurrerakin dokumentua aukera bat da lurraldearen plangintzari eskualdeko ikuspegia emateko. Horrela, hainbat nukleoren arteko osagarritasuna sustatzea, komunikazio azpiegituren garapena eta modernizazioa, nukleo tradizionalen filosofia eta ondarea gordetzea, eta Biosfera Erreserba bera eta turismoa garapen endogenorako aukera gisa aintzatestea oinarritzat dituen lurralde proiektua planteatzen du.

## Udal hirigintza plangintza

Tokiko hirigintza plangintza udalen eskumena da, eta plangintza aurreko tresna bakoitzak ezarritako antolamendu planteamenduetara eta irizpideetara egokitu behar da. Gaur egun, Gernika-Lumok badu hiri antolamendu plan orokor bat, eta Bermeo ere egiten ari da. Urdaibaiko gainerako udalerrietan arau subsidiarioak dituzte udalerriaren plangintzarako. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean sartu zenetik, gaur egun Arau Subsidiarioak dituzten udalerri guztiek Hiri Antolamendu Plan bihurtuko dituzte berrikusketetan.

Oro har, udal plangintzaren garapena[8] aurreraturik dagoela esan daiteke, plangintzan aurreikusitako etxebizitzen % 83,4 gauzatu baitira. Hala ere, aldeak nabarmenak dira udalerri guztiak kontuan hartzen badira. Oro har, hiri lurzorurako aurreikusitako etxebizitzen % 89,5 gauzatu dira. Nabarmentzekoa da lurzoru urbanizagarrirako aurreikusitakoen gauzatze maila txikia (% 4,8); baita, lurzoru urbanizaezinean, bizilekuetarako lurzoruaren garapen altua ere (landa-nukleo izenekoetan), %86,8koa baita. Bestalde, jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren % 73 garatu da. Ea berean, jarduera ekonomikoetarako lurzoru hutsa dago Muxikan, Errigoitin[9], Busturian eta Gernika-Lumon.

| Lurraldea | Etxebizitza nagusiak | | Bigarren etxebizitzak | | Hutsik dauden etxebizitzak | | Beste etxebizitza mota batzuk | | Etxebizitzak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % |
| **Urdaibai** | 15.380 | % 74 | 3.093 | % 14,9 | 2.310 | % 14,9 | 14 | % 0,1 | 20.786 | % 100 |
| Bizkaia | 399.833 | % 86,2 | 18.603 | % 4 | 43.773 | % 9,4 | 2.045 | % 0,4 | 463.868 | % 100 |
| EAE | 747.491 | % 85,1 | 41.219 | % 4,7 | 83.604 | % 9,5 | 5.541 | % 0,7 | 878.241 | % 100 |

**1. taula.** Familia etxebizitza-parkearen banaketa Urdaibain/Bizkaian/EAEn, motaren arabera (2001).

Iturria: Estatistika Institutu Nazionalak emandako datuetan oinarrituta, guk geuk egina. Biztanleen eta etxebizitzen 2001eko errolda.

8 UDALPLANetik hartutako informazioa «Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Hirigintzari eta Antolamenduari aplikaturiko Informazio Geografikoko Sistema».

9 Errigoitiko lurzorua, baina Biosfera Erreserbaren mugetatik kanpora.

Eskuragarri dagoen azken erroldaren arabera (2001), Urdaibaiko etxebizitza-parkea 20.786 etxebizitzakoa da; haietatik, % 74 nagusiak dira, % 14,9 bigarren etxebizitzak dira (lurralde historikoari eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokien batez bestekoa baino askoz ere altuagoa) eta % 11 hutsik daude. Guztizko familia-etxebizitza kopurua % 8 hazi da Urdaibain; Bizkaiak (% 9,5) eta Euskal Autonomia Erkidegoak (% 13,5) izandako igoera baino apur bat gutxiago.

## Etxebizitza merkatua

Higiezinen merkatuari dagokionez, Gernika-Markina eremu funtzionalean, etxebizitza berriaren prezioa, 2006an, 3.029 euro zen metro karratuko, eta erabilitako etxebizitzarena, 3.039 euro. 1997tik 2006ra, etxebizitza libre berriaren prezioa % 156 igo zen eremu funtzionalean; igoera Bilbokoaren parekoa zen (% 154) eta gertu zegoen EAEko igoeratik, baina beste eskualdeetakoa baino txikiagoa zen (Arrasate, % 195, edo Laudio, % 187). Beste alde batetik, Gernika-Markinako Eremu Funtzionalean alokairuan dauden etxebizitzen indizea % 6,5 da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik (% 5,4).

Gernika-Markinako Eremu Funtzionalean etxebizitzarako beharra 3.011 etxebizitzakoa da, eta etxebizitzaz aldatzeko beharra, guztira, 1.019 etxebizitzakoa.[10] Egoera horren aurrean, 1998-2006 epealdian, Urdaibain, 2.363 etxebizitza eraiki zituzten; haietako batzuk indarrean dagoen udal hirigintza planeamenduan aurreikusitako 4.482 etxebizitza berriei dagozkie –horien artean, 984 babes ofizialekoak izango dira–.

## Garraioa eta komunikazioak

Komunikaziorako azpiegitura sistema Urdaibain kontuan hartu beharreko alderdi nagusietako bat da. Sistema horrek bi euskarri ditu: errepide sarea eta trenbidea.



Errepide sarean 146,3 milioi ibilgailu ibiltzen dira km/urteko; trafikoa % 3,2 hazi zen 2005-2006 artean, Bizkaiko sare guztiek izandako hazkundearen gainetik (% 2,8). Bestalde, Autzaganeko igoera, Gernika-Lumo eta Bermeo arteko gunea, eta Amorebieta-Gernika-Bermeo barnebidea nolabaiteko arrisku indizea duten guneen artean daude Bizkaian. [11]

Urdaibain garraio publikoa gehiago erabiltzen da, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoarekin alderatuta. Garraio publikoaren eskaintza trenbideak (Bilbo-Bermeo ibilbidea, Gernikako itsasadarraren ezkerraldea zeharkatzen duena) eta eskualdea Bilborekin, Mungiare-

10 Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak egindako txostenaren arabera, Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko 2006ko azterlana.

11 *Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan 2006.* Bizkaiko Foru Aldundiaren Obra Publiko Zuzendaritza Nagusia.

kin, Bakiorekin edo Lekeitiorekin lotzen duten hamar autobus linea inguruk (Bizkaibus) osatzen dute.

Mugikortasun ohiturak hirigintza ereduaren, komunikazio azpiegituren eta garraio publikoaren arteko elkarreraginaren isla dira. Urdaibain asko erabiltzen da ibilgailu propioa, joan-etorrien % 56 autoz egiten baita; Bizkaian (%31) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (%35) baino gehiago, alegia. Garraio publikoa ere gehiago erabiltzen da: eskualdeko joan-etorrien % 24 (Bizkaian, % 19 eta EAEn, % 14).[12]




**1. irudia.** Joan-etorriak, garraioaren eta lurraldearen arabera (2003).

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2003) Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunaren azterlana.

Hala ere, oinez egindako joan-etorriak % 13 dira Gernika-Bermeon. Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ordea, mota horretako joan-etorriak askoz gehiago dira: % 45 eta % 46, hurrenez hurren.

DIAGNOSTIKO PARTAIDETUAREN SINTESIA – Azpiegiturak eta Lurralde Plangintza

| Indarguneak | Hobetzeke dauden alderdiak |
|---|---|
| • Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren LZPak, gaur egun gauzatzen ari denak, eskualdearen ikuspuntu aukera osoa eskaintzen du.<br>• Urdaibai Biosfera Erreserbak berezko lege eta arau esparrua du, lurzoruaren (urbanizaezina) antolamendurako, babeserako eta erabilerarako zuzentarau orokorrak ezartzen dituena.<br>• Lurzoruaren erabilgarritasuna, etxebizitzetarako eta jarduera ekonomikoetarako.<br>• Eskualdean garraio publikoa gehiago erabiltzen da, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoarekin alderatuta.<br>• Trenbidea indargunea da komunikazio azpiegiturei dagokienez, eta ezkerraldeko ardatza den arren, egun ezin da salgairik garraiatu. | • Lurralde eta hirigintza plangintzak ez du eskualdearen ikuspegirik.<br>• Bigarren etxebizitzen eta hutsik dauden etxebizitzen parkea Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Bizkaikoa baino handiagoa da. Azken urteotan, etxebizitzaren prezioa nabarmen igo da eta, ondorioz, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun handiagoa dago.<br>• Dentsitate baxuetan eraikitako eta tokiko ohiko eraikuntzaren estetikatik aldendutako eraikin motak ugaritzen ari dira.<br>• Ibilgailu pribatua asko erabiltzen da. Zirkulazio dentsitate handia izaten da eskualdera sartzeko errepide nagusian.<br>• Ezberdintasunak, eskualde barruko irisgarritasunari eta komunikazioari dagokionez, bereziki landa eta hiri nukleoen artean eta ezkerraldearen eta eskuinaldearen artean.<br>• Ibilgailu pribatuaren ordezko garraio sistema gutxi garatuta dago, barruko eta eguneroko mugikortasunaren ikuspuntutik. |

12 Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak egindako *Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren 2003ko Azterlana* lanetik lortutako informazioa.

*1. Ardatz Estrategikoaren –hots, Lurraldearen Eredu Iraunkorraren–* helburua hauxe da: «*Lurralde aldetik orekatua den eskualdea lortzea, Urdaibai Biosfera Erreserba irisgarria eta bere ondarearen erantzule izan dadin*». Ondoko Lehentasunezko Lerroen bidez garatzen da:

- 1. ildoa: Lurralde eta hirigintza plangintza integratua.
- 2. ildoa: Hiriginza garapen iraunkorra.
- 3. ildoa: Urdaibai, erabilgarria eta interkonektatua.

## E.1.L.1 – Lurralde eta hirigintza plangintza integratua

HELBURUA: eskualde ikuspegia duen lurralde plangintza garatzea, tokiko hirigintza plangintzaren koordinaziorako erreferentzia moduan balio duena.

Zentzu horretan, tresna nagusiak Gernika-Markinako Eremu Funtzionaleko LZP egitea, Urdaibaiko Lurralde Plan Partziala berrikustea eta eguneratzea, eta Natura 2000 Sarea Biosfera Erreserbaren esparruan barneratzea izango dira. Horretarako, *Kontserbazio Bereziko Eremuen* (KBE) esparruan, oraindik egiteke dauden Babes Bereziko Eremuetako eta ibai sareko *Lurralde Ekintzarako Planak* gauzatuko dira.

| 1.1 | 1. jarduera |
|---|---|
| | Eskualdeko lurralde plangintza egitea. Gernika-Markinako Eremu Funtzionaleko LZP onestea. |
| 1.1 | 2. jarduera |
| | Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) berrikustea eta eguneratzea, hirigintzari, ingurumenari eta lurralde plangintzari buruzko legeriaren xedapen berriei dagokienez. |
| 1.1 | 3. jarduera |
| | Urdainbain Natura 2000 Sareko KBE (Kontserbazio Bereziko Eremuak) izendatzeko dokumentuak egitea eta onestea[13]. |

## E.1.L.2 – Hirigintza garapen iraunkorra

HELBURUA: iraunkorragoak diren hirigintza ereduak sustatzea, lurzoruaren erabileraren optimizazioan, hiriguneen dentsitate orekatuan, kontsumitu beharreko lurzoruaren berrerabileran eta optimizazioan eta eraikinak berritzean oinarritutakoak.

Hirigintza eredu horrek oinarritzat izan behar ditu landa eta hiri eremuen arteko oreka, inguru naturalean ondo barneratzea eta tokiko eraikuntza tradizionalarekin bat egiten dituzten tipologiak sustatzea. Era berean, arreta berezia eskainiko zaie hutsik dauden etxebizitzei eta oso gutxi erabilitakoei, baita babestutako etxebizitzak sustatzeko ekintzak garatzeari ere. Beste alde batetik, Urdaibain bizi direnen baldintzak eta bizi kalitatea hobetzen dituzten bizitegi eremuak eta jarduera eremuak sortzeko jardun behar da. Horretarako,

13 Definizioa eta informazio gehiago eskuragarri ondoko webgunean: www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/natura_2000/es_10989/indice.html.

udal arautegian Plangintzarako eta Eraikuntza Iraunkorrerako Zuzentarauak txertatzea sustatuko da, eta eraikuntza tradizionalen Katalogoa sortuko da.

| 1.2 | 1. jarduera |
|---|---|
| | Udal arautegian Plangintzarako eta Eraikuntza Iraunkorrerako Zuzentarauak txertatzea:<br>• Eraikuntza iraunkorrari buruzko gida liburuek ezarritako irizpideak udal araudietan txertatzea.[14]<br>• Urdaibai osatzen duten udalerrien langile teknikoei ikastaro espezifikoak ematea.<br>• Eskualdean ekintza pilotuak martxan jartzea eta haiek diru-laguntzen bidez sustatzea. |
| **1.2** | **2. jarduera** |
| | Eraikin tradizionalen katalogoa sortzea. |

## E.1.L.3 – Urdaibai, erabilgarria eta interkonektatua

HELBURUA: Urdaibaira joateko eta Urdaibain bertan irisgarritasuna eta komunikazioak hobetzea, lurralde lehiakortasuna eta Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste garapen ardatz batzuekiko harremana sendotze aldera.

Komunikazioek eta garraioak garrantzi handia dute tokiko ekonomia sustatzerakoan, eta funtsezkoak dira lurralde orekarako eta kohesio sozialerako. Erronka nagusia irisgarritasuna indartzea da. Horretarako, batez ere, intermodalitatea bultzatu, garraio sistema eta sare kolektiboak sendotu (eskualdetik kanporantz, eta irisgarritasun txikiagoko landa eremuetarantz, estuarioko bi aldeen arteko ezberdintasunak arintzeko) eta, ibilgailu pribatua ordezkatzeko, ingurumena errespetatzen duten garraiobideak sustatuko dira.

Alde horretatik, eskualdearen irisgarritasuna hobetuko da garraio publikoa berrantolatuta, eta tren zerbitzua sustatzeko eta hobetzeko hainbat ekimen abian jarriko dira. Eskualde barruko irisgarritasunari dagokionez, garatu egingo da udalerrien eta populazio guneen arteko bizikleta bidezko lotura.

Bestalde, eskualdera iristeko errepide sarbideak hobetuko dira, ez bakarrik eskualdearen lehiakortasuna hobetzeko; baita zirkulazioak hobera egiteko eta ibilgailu pribatuek eta salgaien garraioak biztanleriarengan duten eragina murrizteko ere.

Ildo horretatik, mendebaldeko konexioa hobetuko da Sollubetik, Bidebieta gaina Bermeon egingo den saihesbidearekin lotuko duen barnebidea eraikiko baita (Bermeo eta Mungia lotuko dituen autobidearen zati dena). Bestalde, Amorebietarekiko lotura hobetuko duen beste autobide bat eraikiko da Autzaganetik barrena.

14 Ikus Euskal Autonomia Erkidegoan etxebitzak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida, Ihobek Energiaren Euskal Erakundearekin, Orubiderekin eta Visesarekin batera egindakoa, eta *Euskal Autonomia Erkidegoan eraikin administratiboak eta bulegoak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida*, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikin industrialak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida eta *Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza eraikinak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida* (orain egiten ari dira) www.ihobe.net.

### 1.3 1. jarduera

Urdaibain garraio publikoa aztertzea eta berrantolatzea.

### 1.3 2. jarduera

Trenbide zerbitzua sustatzea eta hobetzea:

- Zugastietako erdibitzea.
- Muxikako saihesbidea.
- Axpeko erdibitzea
- Busturiako geltokia eraberritzea
- Bermeoko geltokia eraberritzea eta porturako sarbidea hobetzea
- Bermeoko azpizentral berria.
- Seinaleztapena, komunikazioak, elektrifikazioa eta plataformaren sostengu ahalmena hobetzea.

### 1.3 3. jarduera

Udalerrien eta herriguneen arteko oinezkoentzako eta txirrindularientzako lotura aztertzea:

- Bide sarea eta haren erabileraren azterlana egitea, udalerrien eta herriguneen arteko oinezkoentzako eta txirrindularientzako konexioa hobetze aldera
- Ezkerraldean bidegorriak eta landa bideak egiteko proiektua garatzea eta haiek eraikitzea (Gautegiz-Arteagako, Ibarrangeluko, Kortezubiko, Sukarrietako eta Ajangizko Udalak).
- Gernikaren eta Laida hondartzaren arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako lotura gauzatzea.
- Ibarrangelutik Lagaraino oinezkoentzako eta bizikletentzako bide bat jartzea.

### 1.3 4. jarduera

IIIb Bidebieta gaina-Saihesbidea barnebidea eraikitzea. Bermeo:

- IIIb barnebidea eraikitzea: Bidebieta-Bermeo (Bidebieta gaina – Bermeoko saihesbidea).
- Bi tunel eraikitzea: Ormaetxe eta Sollube.

### 1.3 5. jarduera

IIa barnebidea eraikitzea: Amorebieta-Muxika:

- IIa barnebidea eraikitzea: Autzaganeko barnebidea (A-8-Gernika).
- Urdinbiden tunel bat eraikitzea.

### 1.3 6. jarduera

Bermeoko saihesbidea onestea eta gauzatzea:

- Bermeorako ingurubidea eraikitzea; Gainazabalean tunel bat eta tunel faltsu bat, txarakanen.

## 4.2. 2. ARDATZA: Ondarea eta bioaniztasuna babestea eta kontserbatzea

### «Ingurune natural pribilegiatua eta ondare paregabea gordetzea, Urdaibaiko nortasunaren adierazle da eta»





Urdaibai Biosfera Erreserbak Oka ibai arro hidrografiko osoa hartzen du barne. 22.040 hektareako azalera, 12 kilometro inguruko zabalera eta 20 kilometroko luzera du, eta Urdaibaiko itsasadarraren bidez Kantauri itsasoan itsasoratzen da.

Urdaibai, Euskal Autonomia Erkidegoa osoko estuario ekosistemen artean, adibiderik onena da, eta beste ekosistema eta paisaia paregabe batzuk ere baditu; hala nola, itsasertza, ibai sarea, landazabal atlantikoa eta artadi kantauriarrak. Babesa bermatzeko, gune natural pribilegiatu hau estatus berezia eman dioten hainbat elementuz hornituz joan da:

Zonificación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai



Fuente: UNESCO. Comité español del Programa MaB, 2006. Instituto Geográfico Nacional.

- **Biosfera Erreserba:** UNESCOk 1984an izendatua. Bost urte geroago Eusko Legebiltzarrak Urdaibai Biosfera Erreserbaren babesari eta antolamenduari buruzko 5/1989 Legea aho batez onetsi zuen, eta horren bidez, babestutako eremu horrentzat araubide juridiko berezia ezarri zuen.
- **Ramsar hezegunea:** Gernika-Mundakako itsasadarraren estuarioa Ramsar zerrendan sartutako Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezegunea izan zen.
- **Natura 2000 Sarean parte hartzea:** Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE) eta Hegaztiak Babesteko Zona Bereziek (HBZB) osatzen dute. Urdaibaiko eremuari dagokionez, Europako sare ekologiko honetan artadi kantauriarrak, padurak eta itsasertza eta ibai sarea sartu dituzte. Bestalde, itsasadar osoak eta itsasertzak osatutako eremua Hegaztiak Babesteko Zona Berezi (HBZB) izendatu da.

### Ekosistemak

Honako hauek dira Urdaibaiko ingurune edo ekosistema nagusiak:

- **Itsasertza eta labarrak:** larrez beterik, haize indartsuak, malda handiak eta lurzoruaren urritasuna dituzte ezaugarri. Nabarmentzekoa da katalogatutako hainbat hegazti espezie daudela; hala nola, ekaitz-txori europarra edo ubarroi mottoduna. Landare endemismoren bat ere bada: *Armaria euskadiensis*, esaterako.
- **Estuarioa eta padurak:** oso ekosistema berezia dira, ur geza kontinentala eta itsasoko ur gazia elkartzen baitira bertan. Urdaibaiko paduretako habitatak, batez ere, gazitasun mailaren eta substratuaren menpe daude; estuarioan kanpoaldera dauden areatzetatik

hasita ura ia iristen ez den goi paduraraino. Estuarioak eta padurek Biosfera Erreserba osoko habitat, espezie eta ingurune aniztasunik handiena dute.

- **Baso naturalak eta erdinaturalak:** artadi kantauriarra (1.617 hektarea), baso atlantikoa, harizti azidofiloak eta haltzadiak –ibaiertzeko edo galeriako zuhaiztiak– nabarmentzekoak dira.
- **Landazabal atlantikoa edo nekazaritza arlokoa.** Ingurune txiki-txiki ugari du. Haien artean: zelaiak, haztegiak, errekak, heskaiak eta zuhaiztiak.

## Bioaniztasuna

Urdaibaik, 3.335 taxonarekin –espezieak eta azpiespeziak–, bioaniztasun indize altua du Biosfera Erreserbaren esparruan. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Urdaibai Nazioartean Garrantzitsuak diren Hezeguneei buruzko Konbentzioan dagoela; bereziki, Uretako Hegaztien Habitat gisa (RAMSAR). Izan ere, mokozabalen Europako populazioen migrazio bideetako atseden eta elikadura leku batean dago.

Baso inguruari dagokionez, Urdaibain lurraldearen % 92 jabetza pribatukoa eta erabilera librekoa da. Lurzoruaren erabilerari erreparatuta, 2005eko baso inbentarioaren arabera, azaleraren % 67,2 zuhaiztiek hartzen dituzte, eta ia % 20 belardietarako eta beste erabilera batzuetarako erabiltzen dira.




**2. irudia.** Zuhaiztiak landare motaren arabera (2005).

Iturria: SIGMA. Urdaibai Biosferaren Erreserba.

Zuhaiztiak osatzen dituzten espezien azterketaren arabera, 2005ean, % 60,94 radiata pinuari zegozkioen, % 11,51 eukaliptoari, % 10,29 baso atlantikoari, % 9 arteei, eta gainontzekoa, beste hostozabal, pago eta konifero batzuei; haltzadi kantauriarra urritasunagatik eta narriaduragatik bereziki nabarmentzen da.

## Ur hornidura eta saneamendua

Ur hornidurari dagokionez, Urdaibai Biosfera Erreserbako ia etxe guztiek ur hornidura publikoa dutela ziurta daiteke (% 97,4 2005ean). Balio hori Bizkaikoa baino apur bat txikiagoa da (% 98,7).

Busturialdeko Ur Partzuergoak Urdaibaiko hamalau udalerri ditu, eta horrez gain, Bermeoko, Munitibarko eta Nabarnizko udalerriek ere atxikitzea eskatu dute.[15]




**3. irudia.** Busturialdeko Ur Partzuergora, abonatu motaren arabera (2007).

Iturria: Busturialdeko Ur Partzuergoa.

Kontsumoari dagokionez, 2006an, ur eskaria 309,44 l/bizt./egun[16] izan zen partzuergoa osatzen zuten udalerrien artean; biztanleko kopurua % 9,17 murriztu zen 2002-2006 epealdian partzuergoa osatzen zutenekin alderatuta.

Erabilerei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako bost urteko inkestaren arabera, etxean kontsumitzen da gehien (% 68,9), ondoren industrian (% 11,1) eta merkataritzan (% 8,4). Biztanleen % 42k diote ura eta energia aurrezten dutela.

Biosfera Erreserbaren Ingurumenari buruzko Informazio Sistemak bildutako informazioaren arabera, etxebizitzea eraikinen artean % 76,27k hondakin urak estolderiatik hustutzeko sistemaren bat zuten 2005ean. Aldagai horrek bilakaera positiboa izan du denborarekin,

15 Hamalau udalerrietatik, guztiak dira Urdaibai Biosfera Erreserbaren zati, Ea izan ezik.

16 Normalean bananduta ageri diren alderdiak ageri dira kontsumoan: instituzioenak, adibidez (lorategiak, parkeak, kiroldegiak eta abar). Bestalde, udako kontsumoaren eraginak sortutako desbideraketa kontuan hartu behar da.

2001ean estolderia zuten etxebizitzak % 71,18 ziren eta. Bizkaiko ehunekoaren azpitik dago (% 84,08 2001ean eta % 94,31 2005ean) eta Euskal Autonomia Erkidegoko ehunekoaren azpitik ere bai (% 86,24 2001ean). Dena dela, egoera horrek hobera egingo du Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabateko Saneamendurako Lurralde Ekintzarako Planarekin.

## Kalitate atmosferikoa eta akustikoa

*Airearen kalitateari* dagokionez, Urdaibaik estazio bat du Mundakan, Kostaldea izeneko eremuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatearen Kontrolerako Sarea osatzen duena. Kostaldean airearen kalitatea oso ona da, hain ona ezen 2006an ez baitzen oso kalitate txarreko edo txarreko egunik erregistratu.

*Maila akustikoari* dagokionez, 2000. urtean egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Zarataren Maparen arabera, Urdaibain eragin akustikoa duten hainbat leku daude: N-635 errepidearen Bermeo-Gernika bidegunea; Euskotreneko Bilbo-Bermeo trenbide sarea; Ajangizko, Bermeoko, Gernika-Lumoko eta Muxikako udalerrietako industrialdeak.

*Argi kutsadurari* dagokionez, orain arte egindako analisien eta azterlanen ondorioz, kanpoko argiteriari buruzko udal ordenantza proposamen bat egin da, ingurumena babesteko; Busturiako eta Gautegiz-Arteagako udalek dagoneko onetsia dute.

## Egoera energetikoa

Oro har, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan energia iturri berriztagarrietatik eratorritako energia kopuruaren %3 Urdaibain sortu zela. Izan ere lurralde horretan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 2,1 bizi da eta Euskal Autonomia Erkidegoko energia-sistemaren guztizko energiaren % 1,3 kontsumitzen da. 2000-2005 epealdian Urdaibain energiaren barne kontsumo gordina[17] % 10,6 areagotu zen; Euskal Autonomia Erkidegoan, ordea, % 14,6.

Energiaren barne kontsumo gordinean adierazgarrienak diren erregaiei erreparatuta, 2005ean petrolioa eta bere eratorriak (% 79) izan ziren nagusi, ondoren energia berriztagarriak (% 10) eta gas naturala (% 8); 2000. urtearen antzeko banaketa, alegia. Banaketa horrek adierazten duenez, Urdaibaik petrolioarekiko eta bere eratorriekiko mendekotasun handiagoa du (% 79) Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta (% 39).

Energia arloan iraunkortasunerantz aurrerapausoak emateko, Urdaibaiko 2006-2015 Eperako Energia eta Ingurumen Programa dagoela nabarmendu beharra dago.

17 Sortutako edota inportatutako eskari energetikoa, energia sektorearen bidez eraldatu, garraiatu eta banatu aurretik.




**4. irudia.** Eskari energetikoa, iturrien arabera, EAEn eta Urdaibain.

Iturria:Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Urdaibairentzako energia aukerak.

## Hondakinen ekoizpena eta bilketa

Hondakinen alorrean, Bizkaiko Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketarako Plan Integralaren ondorioz Bermeoko erraustegia itxi egin zen, lurraldeko Hiri Hondakin Solidoen kudeaketarako azpiegitura garrantzitsuenak garatu ziren (Gernikako, Bermeoko eta Gautegiz-Arteagako transferentzia-instalazioak) eta eskualdeko hondakinak biltzeko azpiegiturak hobetu ziren.

| Adierazlea | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | Δ 00-06 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ED (kg/bizt./urteko) Urdaibai | 399,41 | 392,35 | 397,46 | 416,71 | 426,39 | 418,8 | 416,6 | % 4,3 |
| ED (kg/bizt./urteko) Bizkaia | 389,5 | 387,8 | 389,8 | 394,8 | 397,2 | 396,7 | 396,9 | % 1,9 |

**3. taula.** Etxe hondakinen sorreraren bilakaera Urdaibain (2000-2006).

Iturria: Guk geuk egina. Hondakinen behatoki iraunkorra. Bizkaiko Foru Aldundia.

Gaur egun, Urdaibain bildutako *etxeko hondakinen* kantitatea handitu egin da azkeneko urteotan (416,6 kg/bizt. 2006an), baina ez EAEn eta Estatuan bezainbeste. Hala ere, hondakinen gaikako bilketa –papera, beira eta ontziak– ere handitu egin da azken epe honetan. Hortaz, biztanleko eta urteko, 26 kilo beira eta 10,34 kilo ontzi eta bilgarri lortu ziren 2005ean.

| Hondakinak | kg/urteko Urdaibai | Biztanle kopurua edukiontziko | kg/bizt. Urdaibai | kg/bizt. Bizkaia | kg/bizt. EAE | kg/bizt. Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia | 1.253.622 | 183 | 28,12 | 31,38 | 34,65 | 18,72 |
| Beira | 1.160.030 | 184 | 26,02 | 16,97 | 21,06 | 11,8 |
| Ontziak eta bilgarriak | 460.855 | 133 | 10,34 | 10,94 | 10,89 | 6,8 |

**4. taula.** Hondakinen gaikako bilketa Urdaibain, Bizkaian, EAEn, eta Estatuaren babez bestekoa (2005).

Iturria: Guk geuk egina. hondakinen behatoki iraunkorraren datuekin. Bizkaiko Foru Aldundia, Ingurumen adierazleak. Eusko Jaurlaritza, ASPAPEL, INE-ECOEMBES, ECOVIDRIO.

DIAGNOSTIKO PARTAIDETUAREN SINTESIA – Inguru naturala eta bioaniztasuna

| Indarguneak | Hobetzeke dauden alderdiak |
|---|---|
| ● Urdaibai Biosfera Erreserba gisa izendatzea etorkizunerako aukera handia da.<br>● Garrantzia du ikerketa arlo eta laborategi gisa, ekosistemak kontserbatzeko eta birgaitzeko esperientziei dagokienez.<br>● Iraunkortasunarekin loturiko ekipamenduak sortzea, eskualdeko bi buruetatik kanpora. Madariaga Dorretxea eta Urdaibai Bird Centre.<br>● Ondarea eta ekosistemak birgaitzeko jarduerak garatzea.<br>● Uraren eskualdekako kudeaketan aurrerapenak egin dira, eta dagoeneko onetsitako eta abiarazitako Urdaibaiko Erabateko Saneamendurako Lurralde Ekintzarako Plana.<br>● Garapen garrantzitsua energiaren alorreko plangintzari dagokionez.<br>● Hondakin bilketarako eta kudeaketarako azpiegiturak hobetzea.<br>● Gizartearen aldetik, oro har, kontzientzia handiagoa dago, eta iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko ohiturak zabaldu dira.<br>● Lurraldeko enpresen isuriak eta isurketak ezarritako mugen azpitik mantentzea. | ● Nekazaritza lurzoruan eta ingurune naturalean hirigintzaaren presio handia dago.<br>● Basoen politika eta kudeaketa berriz aztertu beharra.<br>● Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruak.<br>● Edateko ur horniduraren plangintzan aurrera egin beharra eta saneamendurako azpiegituren garapena.<br>● Biztanleko sortutako hondakin kopurua Euskal Autonomia Erkidegokoa baino handiagoa izateaz gain, Urdaibain 2000-2006 epealdian % 4,3 igo da.<br>● Ekonomia sektore guztietatik energia eskaria etengabe igotzea.<br>● Gehiegizko mendekotasun energetikoa, petrolioari eta bere eratorriei dagokienez (%79,3).<br>● Eragin akustikoak, errepide nagusi eta industrialdeetatik hurbil. |

2. *Ardatz Estrategikoa: Ondarea eta bioaniztasuna babestea eta kontserbatzea, «inguru natural pribilegiatua eta ondare paregabea Urdaibairen nortasunaren ikur gisa gordetzeko»* asmoz. Lau Lehentasunezko Lerrotan egituratzen da:

- Inguru naturala, bioaniztasuna eta ondarea kontserbatzea eta berreskuratzea.
- Arroaren erabateko saneamendua.
- Energia eredu iraunkorra lortzeko bidean.

## E.2.L.1 – Ingurune naturala, bioaniztasuna eta ondarea kontserbatzea eta berreskuratzea

HELBURUA: inguru naturalari, bioaniztasunaren eta Urdaibaiko ondareari balioa ematea bai bertakoentzat bai bisitarientzat erreferentzia izateko.

Lurraldearen berezko baliabideak gordetzea eta berreskuratzea Urdaibaiko erakargarritasuna eta ongizatea sustatzeko modurik onena da. Administrazio Publikoek haien eskumeneko esparruan neurriak garatu behar dituzte, inguru naturalaren, bioaniztasunaren eta ondarearen kontserbazioa bermatzeko eta haien hedapena sustatzeko.

# 2. ARDATZA: ONDAREA ETA BIOANIZTASUNA BABESTEA ETA KONTSERBATZEA

## 2.1 1. jarduera

Ondarea eta bioaniztasuna kontserbatzeko, berriztatzeko, birsortzeko eta hobetzeko esperientziak eta proiektuak gauzatzea:

- Gautegiz-Arteagako padurak ingurumenaren aldetik hobetzea.
- San Kristobal berriztatzea eta ingurumenaren aldetik hobetzea.
- Muruetako triangeluaren lursailak ingurumenaren aldetik hobetzea.
- Kanalako ostra haztegiari balioa ematea.
- Artadi kantauriarrean eta bertako babes eremuan zuloak garbitzea.
- Laidako hondartzako duna sistema kontserbatzea eta mantentzea.
- Anbekoko polderra kontserbatzea, uhateak eta larratzea erabilita.

## 2.1 2. jarduera

Euskal Autonomia Erkidegoko Bioaniztasun Gunea sortzea eta sustatzea Euskadiko naturaren ikerketarako eta hedapenerako erreferente gisa.

## 2.1 3. jarduera

Udalek sustatuta, ingurumena berreskuratzeko proiektuak garatzea:

- Mape ibaiertzak leheneratzea (Busturiako Udala).

## 2.1 4. jarduera

Ingurumena berreskuratzeko jarduerak gauzatzea, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legeari jarraiki:

- Lagako hondartza egokitzea (Ibarrangelu).
- Axpeko ingurua (Busturia) ingurumen aldetik berreskuratzea.
- Atxagako padura (Forua) ingurumen aldetik berriztatzea.

## 2.1 5. jarduera

Beste Administrazio Publiko edota erakunde publiko zein pribatu batzuekin hitzarmenak egitea ondarea kontserbatzeko eta Urdaibaik EAEko eta nazioarteko kontserbazio sareetan parte har dezan.

## 2.1 6. jarduera

Espezie exotiko inbaditzaileen aurkako proiektuak gauzatzea eta udalaz gaindiko edo eskualdeko jarduera zehatzak garatzea:

- *Baccharis halimifolia* erauztea Urdaibaiko estuarioan.
- *Cortaderia selloana* kentzea hainbat udalerritan.
- Kartografia eguneratzea eta espezie exotiko inbaditzaile nagusiei jarraipena egitea.

## 2.1 7. jarduera

Urdaibaiko paisaia aztertuko eta bereiziko duen lantalde bat sortzea, balioa emateko bereziki sortua.

## 2.1 8. jarduera

Unibertsitateekin eta ikerketa guneekin lankidetza hitzarmenak egitea, Urdaibain ikerketa aplikatua sustatzeko eta ikerketa emaitzen transferentzia eta elkartrukea hobetzeko:

- Unesco Katedrarekin sinatutako hitzarmena mantentzea.
- Madariaga Dorretxeko Euskal Autonomia Erkidegoko Bioaniztasunaren Gunearekin, besteak beste, esparru hitzarmen bat egitea.

## 2.1 9. jarduera

Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centre hegazti migratzaileen ikerketa gune gisa sustatzea.

**2.1 10. jarduera**

Norbanakoei eta udalerriei laguntzak ematea, ingurumena kontserbatzeko, berriztatzeko eta integratzeko jarduerak egiteko:

- Garapen iraunkorra sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalentzako, mankomunitateentzako edota tokian tokiko beste erakunde batzuentzako diru laguntzak.
- Ingurumena eta paisaia kontserbatzeko, berriztatzeko eta integratzeko jarduetarako laguntzak, Urdaibai Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean partikularrek egin beharrekoak.

**2.1 11. jarduera**

Kudeaketarako formula berrien eraginkortasuna aztertzea (lurraren zaintza, ingurumen zerbitzuengatiko ordainketa eta abar).

**2.1 12. jarduera**

Artearen eta kulturaren aldetik interesgarriak diren ondasunen katalogoa egitea.

## E.2.L.2 – Arroaren erabateko saneamendua

HELBURUA: lurraldeko hiri isurketak biltzeko eta garbitzeko azpiegiturak garatzea eta saneamendu sareak berritzea sustatzea. Beraz, uraren ziklo osorako garrantzitsuak diren jarduerak garatu behar dira, saneamenduaren alorreko arazoak konpontze aldera.

Datozen bost urteotan garatuko diren jarduerei esker, Urdaibaiko Saneamendurako Plan Integralean aurrera egingo da; batez ere, Lamiaraneko hondakin-uren araztegia eraikita, udalaz gaindiko saneamendu sareko bi proiektu eta biltodi handiak eraikita, eta tokiko saneamendurako hainbat proiektu gauzatuta.

**2.2 1. jarduera**

Tokiko saneamendurako proiektuak gauzatzea:

- Baldatika auzoaren saneamendurako proiektua.
- Lumoren saneamendurako proiektua.
- Loiola-Laudiz-Elexalde auzoen saneamendurako proiektua, 2. fasea: 1. fasera gehitzea (Arratzu udalerria).

**2.2 2. jarduera**

Udalaz gaindiko saneamendu sareko bi proiektu handiak osatzea:

- Gernikaren saneamendu proiektua. Ibarreko Ponpaketa-estazioa – Gernikako Hondakin Uren Araztegia.
- Mundakako itsasadarraren ezkerraldeko biltodi orokorra eraikitzeko proiektua: Busturia-Sukarrieta zatia
- Mundakako itsasadarraren ezkerraldeko biltodi orokorra eraikitzeko proiektua: Muxika-Gernika zatia.
- Bermeoko saneamendu proiektuaren 2. banakapena: Sare Nagusia.
- Mundakako itsasadarraren ezkerraldeko biltodi orokorra eraikitzeko proiektua: Gernika-Busturia zatia.
- Mundakako itsasadarraren ezkerraldeko biltodi orokorra eraikitzeko proiektua: Sukarrieta - Lamiarango Hondakin Uren Araztegia zatia.
- Mundakako itsasadarraren ezkerraldeko biltodi orokorra eraikitzeko proiektua: Mundaka - Lamiarango Hondakin Uren Araztegia zatia.

**2.2 3. jarduera**

Lamiarango Hondakin Uren Araztegia eraikitzea.



## E.2.L.3 – Energia eredu iraunkorra lortzeko bidean

HELBURUA: energiaren arrazoizko erabilera sustatzea eta energia iturri berriztagarrien erabilera bultzatzea, aurrezte neurriak eta eraginkortasun energetikorako neurriak aplikatuz eta Urdaibaiko ondarearen kontserbazioarekin bateragarriak diren lurraldeko baliabide naturalak aprobetxatuz.

Urdaibaik energiaren kontsumo iraunkorraren alde egin behar du, iraunkortasun irizpideei jarraiki lurraldearen garapen sozioekonomikoa ahalbidetzen duten energia iturri garbiagoak garatuz. Horretarako, Urdaibaiko Energia Plana berrikusiko da, eta elektrizitatea banatzeko sarearen hobekuntzan eta haren garapenean iraunkortasun irizpideak txertatzeko bidean aurrera egingo da.

| 2.3 | 1. jarduera |
|---|---|
| | Energia eta Ingurumen Programa berrikustea. |
| **2.3** | **2. jarduera** |
| | Elektrizitatea banatzeko sarearen hobekuntzan eta garapenean iraunkortasun irizpideak txertatzea. |
| **2.3** | **3. jarduera** |
| | Gas naturala banatzeko gasbidea eraikitzea Muxikan. |

## 4.3. 3. ARDATZA: Ekonomia lehiakorra eta bere inguruarekiko orekan dagoena





«Sektore ekonomiko, aurreratua, anitza eta modernoa lortzea, bere inguru naturalarekin eta sozialarekin etengabeko orekan dagoena»

Urdaibai inguru natural pribilegiatua duen lurraldea da, 2006an 44.784 biztanle zituen, eta tradizioz industria eta arrantza sektoreetan eta lehen sektorean oinarritu du ekonomia.

### Demografia eta jarduera

Demografikoki, kontuan hartu behar da 1996-2006 epealdian biztanleriak % 1,6 gora egin zuela, EAEren joerari jarraiki. Hala ere, beste eskualde batzuetan (alboko Markina-Ondarroan) % 0,9 jaitsi zen. Dena den, Urdaibaik zahartze indize altua (15 urtetik beherako pertsonako 65 urtetik gorako ia bi pertsona daude) eta gazteria tasa baxua (% 8,8) ditu ezaugarri. Hortaz, bere mendekotasun indizea (0,51) Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Bizkaikoa (0,46) baino apur bat handiagoa da; hau da, Urdaibain bi helduek egiten duten lanak mendeko pertsona bat mantentzeko balio du, gazte ala zaharra izan.

### Lan merkatua

Lan merkatuari dagokionez, Urdaiban jarduera tasak gora egin du, 1986ko % 35,3tik 2001eko % 49,5era. Ondorioz, Bizkaiko (% 45,2), Euskal Autonomia Erkidegoko (% 46,8) eta alboko eskualdeetako (Markina-Ondarroa, % 45,6) batez bestekoen gainetik dabil.

| Sexua | Urdaibai | Bizkaia | EAE | Markina-Ondarroa | Gernika-Lumo | Bermeo |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonak | % 59,6 | % 55,5 | % 56,7 | % 55 | % 52,6 | % 51,7 |
| Emakumeak | % 39,9 | % 35,9 | % 37,4 | % 36 | % 36,2 | % 34,6 |
| *Guztira* | **% 49,5** | **% 45,2** | **% 46,8** | **% 45,6** | **% 44,1** | **% 43** |

**5. taula.** Jarduera tasak, sexuaren arabera (2001).

Iturria: EUSTAT.

Enplegu eskariari dagokionez, 1997-2007 epealdian, Urdaibain enplegua eskatzen zuten pertsonen kopuruak % 20,8 behera egin zuen; Euskal Autonomia Erkidegoko (-% 32,3) eta Bizkaiko (-% 33,8) batez bestekoek baino gutxiago, baina Markina-Ondarroakoak baino gehiago (-% 1,7).

| Lurraldea | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | Δ 1997-2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 108.492 | 92.458 | 82.672 | 74.647 | 71.229 | 71.913 | 72.512 | 70.008 | 81.020 | 76.409 | 73.448 | % -32,3 |
| Bizkaia | 61.691 | 52.799 | 48.033 | 44.107 | 41.501 | 41.180 | 41.959 | 40.705 | 46.746 | 43.069 | 40.821 | % -33,8 |
| Urdaibai | 1.751 | 1.507 | 1.283 | 1.176 | 1.172 | 1.161 | 1.135 | 1.210 | 1.236 | 1.570 | 1.386 | % -20,8 |
| Markina-Ondarroa | 2.632 | 2.504 | 2.455 | 2.415 | 2.441 | 2.481 | 2.476 | 2.541 | 2.772 | 2.670 | 2.586 | % -1,7 |
| Gernika-Lumo | 700 | 625 | 461 | 454 | 466 | 467 | 422 | 500 | 520 | 587 | 531 | % -24,1 |
| Bermeo | 712 | 576 | 566 | 464 | 471 | 455 | 441 | 432 | 451 | 622 | 543 | % -23,7 |

**6. taula.** Enplegu-eskarien bilakaera (1997-2007) .

Iturria: EUSTAT. SISPE.

Sektoreka, «beste zerbitzu batzuk» izeneko sektorerako eskatzen dute, gehienbat, enplegua (% 39,2); ondoren, manufaktura-industriarako (% 23,2) eta merkataritza eta ostalaritzarako (% 16,7).




**5. irudia.** Enplegu eskarien sektorekako banaketa, Urdaibain (2007)

Irudia: LANBIDE.

## Familia eta norbanakoaren ekonomia

2001ean per capita errenta gordina[18] Urdaibain 10.728 eurokoa zen; EAEkoa baino apur bat txikiagoa (10.823 €), baina Bizkaikoa baino handiagoa (10.571 €). Urdaibain familia errenta 2003an 33.283 eurokoa zen; EAEkoa (32.609 euro) eta Bizkaikoa (32.201 euro) baino apur bat handiagoa. 1997-2003 epealdian, Urdaibain familia errentak % 35,8 gora egin zuen; Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan (% 28 inguru) aurreikusitako igoera baino handiagoa.




**6. irudia.** Per capita errenta gordina 2001ean (euroak).

Iturria: EUSTAT. Biztanleen eta etxebizitzen errolda 2001. Familien eta Norbanakoen Errenta Estatistikak.

18 Funtsean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) oinarritutako adierazlea lurralde jakin baterako.

| Lurraldea | 1997 | 2003 | Δ 1997-2007 |
|---|---|---|---|
| EAE | 25.357 | 32.609 | % 28,6 |
| Bizkaia | 25.011 | 32.201 | % 28,7 |
| Urdaibai | 24.508 | 33.283 | % 35,8 |
| Markina-Ondarroa | 23.763 | 29.821 | % 25,5 |

**7. taula.** Familia-errentaren bilakaera 1997-2003 (euroak).

Iturria: EUSTAT. Biztanleen eta etxebizitzen errolda 2001. Familien eta Norbanakoen Errenta Estatistikak.

## Eskualdeko ekonomiaren sektorekako banaketa

Eskualdeko ekonomiaren sektorekako banaketa Bizkaiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren antzekoa da. Biztaleen eta etxebizitzen erroldaren arabera, 2001ean, biztanleen % 55,5ek hirugarren sektorean ziharduten, % 26,7k industrian, % 9,4k lehen sektorean (EAEn, % 1,8, eta Bizkaian, % 1,5, baino askoz gehiago) eta % 8,4k, eraikuntzan.

1996-2001 epealdian, lehenengo sektorean ziharduten pertsona kopurua % 25,5 jaitsi zen (EAEko -% 10,1 eta Bizkaiko -% 7,7 baino gehiago), industrian % 13,5 handitu zen (Bizkaiak, % 0,6, eta EAEk, % 8, izandako igoera baino handiagoa), eraikuntzan % 31,handitu zen (Bizkaiko % 62,1 eta Euskal Autonomia Erkidegoko % 55,1 baino gutxiago) eta, azkenik, zerbitzuen sektorean % 3,1 handitu zen.




**7. irudia.** 16 urteko eta hortik gorako landun biztanleak, jarduera lerroen arabera (2001) .

Iturria: EUSTAT. Biztanleen eta etxebizitzen errolda 2001. Familien eta Norbanakoen Errenta Estatistikak.

| Lurraldea | Δ 1996-2001 | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Nekazaritza | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
| EAE | % -10,1 | % 8 | % 55,1 | % 32,4 |
| Bizkaia | %-7,7 | % 0,6 | % 62,1 | % 33,3 |
| Urdaibai | %-25,5 | % 13,5 | % 31,9 | % 33,1 |
| Markina-Ondarroa | %-21,1 | % 30,8 | % 26,8 | % 24,1 |

**8. taula.** Landun biztanleen bilakaera, lurraldearen eta sektore ekonomikoen arabera (1996-2001).

Iturria: EUSTAT. Biztanleen eta etxebizitzen errolda 2001. Familien eta Norbanakoen Errenta Estatistikak.

Urdaibain lehen sektoreak garrantzi handia du. Izan ere, 2001ean Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan landun biztanleen % 1,5 eta %1,8 ari zen lehen sektorean, hurrenez hurren; eskualdean, ordea, bertako landunen % 9,4. Hala ere, 1989 eta 1999 artean, landutako lurren (% 48,2) eta abeltzaintza ustiategien (% 34,2) hektarea kopurua eta abelburuak (% 39,8) murriztu egin ziren. Joera orokor horiek alde batera utzita, sektore horrek zenbait itxuraldaketa garrantzitsu izan ditu, nekazaritza ekologikoan erabilitako azalera 2004-2006 artean hirukoiztu baita, 76,18 hektareara iritsi arte. Era berean, mahastietarako azalera (txakolina) handitu egin da; 1988an bi hektarea zituen eskualdeak, eta 1999an, 28.

Arrantza, tradizioz, eskualdeko motore ekonomikoetako bat izan da. Gaur egun, Bermeo Kantauri itsasoko baxurako portu nagusia da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko baxurako ontzidi nagusia du (93 itsasontzi). Jarduera honek, guztira, Urdaibain, 1.146 lanpostu sortzen ditu (lehen sektoreko enpleguaren % 80). Hala ere, arrantzategiak agortzearen ondorioz, azken urteotan arrantza sektoreak balio ekonomiko txikiagoko espezieetara jo du; berdelera eta hegaluzera, hain zuzen. Harrapatutako hegaluzearen balioa moneta balio osoaren % 62 da; berdelaren kasuan, ordea, % 34 (nahiz eta berdela harrapatutako kopuru osoaren % 67 den).

| Lurraldea | Guztira | Industria eta energia | Eraikuntza | Merkataritza; ibil. konponketa | Ostalaritza | Garraioa, Bilteg. eta Komun. | Interm. Finan. eta enpresentzako zerbitzuak | Beste zerbitzu batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 186.306 | % 7,9 | % 14,5 | % 25,7 | % 7,7 | % 8,1 | % 21,4 | % 14,6 |
| Bizkaia | 95.220 | % 6,9 | % 13,6 | % 26,7 | % 8,3 | % 8,5 | % 22,5 | % 14,2 |
| **Urdaibai** | **3.310** | **% 7,3** | **% 17,1** | **% 26,7** | **% 9,9** | **% 6** | **% 16,5** | **% 16,6** |
| Markina-Ondarroa | 1.843 | % 10,5 | % 11,9 | % 28 | % 11,3 | % 7,8 | % 13,3 | % 17,1 |

**9. taula.** Establezimendu kopuruen banaketa sektore ekonomikoen arabera (2006).

Iturria: EUSTAT. DIRAE.

Establezimenduen sektorekako banaketari dagokionez, Urdaibairi dagokion ehunekoa EAEko eta Bizkaiko batez bestekoaren gainetik dago, industria establezimenduei (% 7,9), eraikuntzari (% 17,1) eta ostalaritzari dagokienez (% 9,9). Sektorekako banaketa hau ez da asko aldatu azken hamarkadan. Nabarmentzekoa da eraikuntzarekin loturiko establezimenduak ugaritu direla (% 10,6 1995ean eta % 17,1 2006an); garraioarekin eta komunikazioarekin (% 3,3 1995ean eta % 6 2006an) eta enpresentzako finantza zerbitzuekin loturiko establezimenduak (% 11 1995ean eta % 16,5 2006an) ere ugaritu dira. Ostalaritza establezimenduak (% 12,1 1995ean eta % 9,9 2006an) eta industria-energia arlokoak gutxitu egin dira (% 8,1 1995ean eta %7 ,3 2006an).

Urdaibaik establezimenduak ditu ezaugarri eta, oro har, tamaina txikikoak dira. Izan ere % 77k 0 eta 2 langile artean dituzte, eta % 13,7k, 3 eta 5 enplegu artean.

Gaur egun, Urdaibain 12.922 pertsonak lan egiten dute establezimenduetan; 1995an baino % 34,7 gehiago, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko joeraren antzera –bertan % 39ko eta % 38,5eko igoera izan dute, hurrenez hurren–.

| Lurraldea | Guztira | 0 eta 2 artean | 3 eta 5 artean | 6 eta 9 artean | 10 eta 19 artean | 20 eta 49 artean | >= 50 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 186.306 | % 74,4 | % 13,6 | % 4,8 | % 3,6 | % 2,4 | % 1,2 |
| Bizkaia | 95.220 | % 75,1 | % 13,2 | % 4,7 | % 3,5 | % 2,3 | % 1,2 |
| **Urdaibai** | **3.310** | **% 77** | **% 13,7** | **% 4** | **% 2,8** | **% 1,5** | **% 1,1** |
| Markina-Ondarroa | 1.843 | % 75,2 | % 14,6 | % 4,5 | % 3,2 | % 1,9 | % 0,6 |
| Bermeo | 1.158 | % 79,5 | % 12,4 | % 3,5 | % 2,1 | % 1,4 | % 1,1 |
| Gernika-Lumo | 1.438 | % 74,1 | % 15,3 | % 4,7 | % 3,1 | % 1,8 | % 1 |

**10. taula.** Establezimendu kopuruaren banaketa, langile kopuruen arabera (2006).

Iturria: EUSTAT. DIRAE.

## Enpresa eta iraunkortasuna

Urdaibain industriak ahalegin handiak egiten ditu kalitateko produktuak eskaintze eta inguruan behar den moduan lekukotze aldera. Ziurtapenak konpromiso honen adierazle nagusiak dira, eta 2005ean 102 enpresek ziurtapenen bat zuten (ISO 9000, ISO 14001, EKOSCAN edo EMAS). Gainera, nekazaritza produktu batzuek beren izendapen propioa dute kalitate labelarekin: Gernikako babarrunak eta piperrak, esaterako.

DIAGNOSTIKO PARTAIDETUAREN SINTESIA – Dinamizazio ekonomikoa

| Indarguneak | Hobetzeke dauden alderdiak |
|---|---|
| • Bizkaiak eta EAEk baino jarduera tasa handiagoa duen lurraldea.<br>• Emakumeen jarduera tasa handitzen ari da.<br>• Lehen sektoreak pisu handia du enpleguan (% 9,4), EAEko (% 1,8) eta Bizkaiko (% 1,5) batez bestekoen gainetik.<br>• Azken urteotan nekazaritza ekologikorako azalera nabarmen handitu da.<br>• Industriaren sektoreak indar handia du enpleguari dagokionez.Urdaibain landun biztanleen % 26,7 ari dira horretan; Bizkaian % 23,6 eta EAEn % 27,3.<br>• Enpleguak gora egin du industria eta zerbitzu establezimenduetan. Ingurumen ziurtapenak enpresetan zabaltzen ari dira poliki-poliki.<br>• Ondare garrantzitsua, naturala, historiko-artistikoa eta kulturala. Landa turismo iraunkorra garatzeko potentziala.<br>• Arrantza tradizioa eta esperientzia.<br>• Ekonomia sustatzeko inbertsioak eta politika sektorialak. | • Mendekotasun tasa handitu da.<br>• Biztanleen prestakuntza maila ez dago merkatuaren eskariari egokituta.Talentuak beste eskualde batzuetara joaten dira.<br>• Gizonen eta emakumeen jarduera tasen arteko desberdintasun handia.<br>• Industria erakartzeko ahalmen handiagoa duten beste eskualde batzuekiko lehia.<br>• Eskualdeko enpresak deslokalizatzeko arriskua.<br>• Tokiko enpresek lehiakortasuna gal dezakete garapenean eta I+G+B aplikatzerakoan gabeziak dituztelako.<br>• Lehen sektorean lanpostuak gutxitzen ari dira eta ustiategiak murrizten ari dira.<br>• Arrantza sektorea errentagarritasun txikiagoko espezietan espezializatzen ari da.<br>• Koordinazio eza turismoa kudeatzen duen erakundeen artean.<br>• Turismoaren gehiegizko urtarokotasuna. |

3. *Ardatz Estrategikoa: Ekonomia lehiakorra eta bere inguruarekin orekan dagoena*, «*bere inguru naturalarekin eta sozialarekin etengabeko orekan dagoen sektore ekonomiko aurreratua, anitza eta modernoa lortzeko*». Honako Lehentasunezko Lerro hauen bidez garatzen da:

- 1. ildoa: Berrikuntza eta sustapen ekonomikoa.
- 2. ildoa: Marka eta kalitatearen irudia.
- 3. ildoa: Turismo iraunkorra.

### E.3.L.1 – Berrikuntza eta sustapen ekonomikoa

HELBURUA: eskualdearen dinamizazio ekonomikoa hobetzeko neurriak martxan jartzea, tokiko baliabideak aprobetxatuz eta jarduera ekonomikoak ingurumenarekin eta garapen sozialarekin bateratuz. Berrikuntzarako inbertsioa handitu nahi da, jarduera erakargarri bilakatzeko eta eskualdeko sektoreak nahiz produktuak dibertsifika daitezen (lehen sektoreko produktuen balio erantsia handitzeaz gain).

Urdaibaiko baldintza bereziek zehazten dute berrikuntza ardaztearen interesa, aztarna ekologikoa gutxitze aldera. Hau da, eko-berrikuntzarantz; kontzeptu horren arabera, ingurumena da lehiakortasuna hobetzeko eta, inguruan eragin txikiagoa izanda, produktu eta zerbitzuak indartzeko aukera.

Enpresa eta erakunde publiko-pribatuen arteko lankidetzan oinarritutako esparru ekonomikoa sortu nahi da, non industria eta nekazaritza elikagaien sektoreak eutsi egiten dion eskualdeko ekonomian duen ohiko pisuari. Beste alde batetik, garrantzitsua da sortzen diren sektore berriei probetxua ateratzea dinamizazio ekonomikoa lortzeko; hala nola, turismoari, kultura eta aisiari, eta energia berriztagarriei.

**3.1 — 1. jarduera**

Miango-Agerre-Untzeka Jarduera Ekonomikoen Sektorea garatzea, Busturialdeko Industrialdeak sustatutakoa.

**3.1 — 2. jarduera**

Eskualdeko Tokiko Garapen Agentzia sortzea.

**3.1 — 3. jarduera**

Nekazaritza elikagaiek eta basoko produktuek balio handiagoa izan dezaten sustatzea, berrikuntza eta teknologia aplikatuz:

- Muxikako udalerrian biomasa eta bere eratorriak energia aukera gisa erabiltzeko proiektu pilotua (Pellet).

**3.1 — 4. jarduera**

Kultura ekintzailea eta enpresen sorrera sustatzeko ekintzak:

- Orientazioa eta aholkularitza, proiektuen tutoretza (banaka edota taldeka), Ekintzailearen eguna antolatzea, LUR BARRIAK antolatzea (enpresa-ekimenen lehiaketa), enpresa sortu berriei jarraipena egitea eta abar.

**3.1 — 5. jarduera**

Enpleguari buruzko informazio eta orientazio ekintzak:

- Orientaziorako Lanbide programa, banakako nahiz taldekako eta enplegu zentroaren bidez.

**3.1 — 6. jarduera**

Prestakuntza ekintzak garatzea, merkatuaren beharren arabera:

- Lan prestakuntza, langabetuen edo egonkortasuna hobetu beharra duten pertsonen lanbide trebakuntzarako edota kualifikazio profesionala hobetu beharra duten pertsonentzako lan trebakuntzarako prestakuntza.

| 3.1 | 7. jarduera |
|---|---|
| | Arrantza sektoreko enpresei haien balio lehiakortasuna hobetzea helburu duen laguntza programa:<br>• Valora Proiektua: Kudeaketa hobetzeko planen bidez enpresen kudeaketa optimizatzea, berrikuntzarekin eta lehiakortasunarekin loturiko gaietan aurrera egitea lortzeko helburuarekin. |
| **3.1** | **8. jarduera** |
| | Bermeoaldearen eta Donibane Lohitzuneren artean arrain kontserbak merkaturatzeko mugaz gaindiko plataforma bat abiatzearen eraginkortasunari buruzko aldez aurretiko azterlana egitea. |
| **3.1** | **9. jarduera** |
| | Kontserben sektorearen Kluster bat ezartzearen eraginkortasunari buruzko azterlana. |

## E.3.L.2 – Marka eta kalitatearen irudia

HELBURUA: Biosfera Erreserbaren izendapenak suposatzen duen marka eta kalitatearen (label) irudia sustatzea, eskualdeko produktu eta zerbitzuak bultzatze aldera.

Argi dago Biosfera Erreserba gisa izendatutako lurralde batean ingurumena errespetatzen duten ekoizpen sistemak sustatu behar direla eta, modu berean, kalitatezko marketako produktuei dagokienez, izendapen horrek dakartzan merkaturatze abantailak aprobetxatu behar direla.

| 3.2 | 1. jarduera |
|---|---|
| | Urdaibai Biosfera Erreserbarekin loturiko kalitatezko markaren irudia ezartzea:<br>• Analisi proiektua, baldintzak, eraginkortasuna eta ezartzeko metodologia.<br>• Marka ezartzeko proiektu pilotua. |
| **3.2** | **2. jarduera** |
| | Kalitatezko nekazaritza elikagai ekologikoen ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin loturiko prestakuntza jarduerak antolatzea. |

## E.3.L.3 – Turismo iraunkorra

HELBURUA: turismo iraunkorra sustatzea aniztasun ekonomikorako tresna gisa. Turismoaren kalitatea hobetuz, kultura, ingurumena eta Urdaibaiko baloreak errespetatuz eta horiei balioa emanez. Ingurumena errespetatzen duen sektore turistikoa garatu nahi da, baliabide endogenoak oinarritzat dituena eta, batez ere, landa inguruan aniztasun ekonomikoa sustatzen duena.

Urdaibaiko Turismoaren Garapen Iraunkorrerako Plana sustatu behar da, produktu eta turismo zerbitzuen eskaintza anitza eta kalitatezkoa sortzeko oinarri moduan, berrikuntzaren bidez eta sektoreko profesionalei zuzendutako prestakuntzaren bidez, eta enpresen lehiakortasunaren hobekuntza sustatuta.



**3.3 1. jarduera**

Urdaibaiko Turismoaren Garapen Iraunkorrerako Plana eguneratzea.

**3.3 2. jarduera**

Turismoarekin loturiko produktu eskaintza anitza, berritzailea eta kalitatezkoa garatzea:

- Garapen Planean zehaztutako produktuak eskualdeko udalekin eta turismoaren sektore pribatuarekin batera gauzatzea.

**3.3 3. jarduera**

Zerbitzua, antolaketa, marketina eta abar berritzeko elementuak txertatzea, Urdaibaiko ostatu eta sukaldaritza turismo enpresen lehiakortasuna hobetze aldera:

- Ostatu eta sukaldaritza turismo enpresak Berrikuntza agenda edo MET (turismo enpresen modernizazioa) programetan sartzea.

**3.3 4. jarduera**

Pixkanaka Urdaibaiko turismoaren sektorea Kalitate Turistiko programetan (Kalitatezko Q eta Kalitatezko Jardunbide Egokiak) eta ingurumen ziurtapenetan (EKOSKAN) sartzea:

- Kalitate Turistikorako Jardunbide Egokien Programa, Kalitatezko Q edota Ekoskan garatzea Urdaibain.

**3.3 5. jarduera**

Urdaibaiko turismoaren sektorean aritzen diren profesionalen trebakuntza hobetzea:

- Turismoaren sektoreko profesionalentzako prestakuntza ekintzak antolatzea gai giltzarrien inguruan; kalitatea, berrikuntza, marketina, zerbitzuak eta abar.

# 4.4. 4. ARDATZA: Urdaibai, barne lotura eta konpromisoa




## «Biztanleen bizi kalitatea hobetzea erakundeen arteko koordinazioaren bidez eta partaidetza sustatuz»

Urdaibai Biosfera Erreserbak, 2006an, 44.784 biztanle zituen [19] eta udan beste 15.000 pertsona gehitu behar zaizkie. 1996 eta 2006 artean, biztanleria % 1,6 hazi zen (guztira, 708 pertsona).

| Lurraldea | 1996 | 2006 | Δ 1996-2006 |
|---|---|---|---|
| **Urdaibai** | **44.076** | **44.784** | **% 1,606** |
| Bizkaia | 1.140.026 | 1.139.863 | % -0,014 |
| EAE | 2.098.055 | 2.133.684 | % 1,698 |

**11. taula.** Biztanleen bilakaera. Urdaibai-Bizkaia-EAE (1996-2006).

Iturria: EUSTATek emandako datuetan oinarrituta guk geuk egina.




**8. irudia.** Biztanleen bilakaera. Urdaibai (1996-2006).

Iturria: EUSTATek emandako datuetan oinarrituta guk geuk egina.

Azken hamarkadako hazkunde demografikoa ez da hazkunde begetatibo positiboaren ondorio izan, baizik eta immigrazioa areagotu izanaren ondorio. Horrela, 1997tik aurrera Urdaibain migrazio saldoak positiboak izateaz gain, modu progresiboan handituz joan ziren. Hain zuzen ere, immigranteen kopurua zazpi aldiz handiagoa izan da 2000-2005 epealdian; izan ere, 2005ean 1.391 atzerritar zeuden erroldatuta.

19 Udaleko erroldaren berrikusketatik ateratako informazioa..

## Biztanleriaren banaketa, adinaren arabera

Urdaibaiko adin taldekako biztanleen piramidetik, ondokoa ondoriozta daiteke:

